

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



## Indarturik, Madrilera

Aspaldiko manifestazio handienaren ondoren hasi da Altsasuko auziko epaiketa / 2-5



**Burundar Txistulariek eta Etxarri Aranazko abesbatzak kontzertua eskainiko dute Altsasan / 23**

**Ama Lur azokak ekoizleen produktuak zuzenean kontsumitzaileen eskura jarriko ditu / 9**

**Munduko Arrozak ekimenak, jatorri desberdinekoen arteko zubiak sortzeko modua / 9**

**Sakana herri eskolekin sortzen festa hartuko du Etxarri Aranatzek bihar / 11**

**Victor Urkijo Tobalina, Otsaportilloko lezetik familiaren eskuetara pasa zen igandeko ekitaldian / 7**

**Altsasuko Bizi Mendi Duatloian 121 bikotek hartuko dute parte bihar goizeko 10:00etan / 17**

**Astelehenean Liburuaren Eguna dela eta hainbat ekitaldi antolatu dira Sakanan / 14 / 21-22**



**Ezkurdiak eta Jakak Buruz Buruko final zortzirena jokatuko dute gaur Altsasuko Burunda frontoian / 16**



Gaztelu plaza txiki gelditu zen hurbildu zen jendetzarentzat.

## 50.000 pertsonak justizia eskatu zuten Iruñean

Altsasuko Gurasoak taldeak eskaera argia egin zuen: "ez dugu inpunitaterik eskatzen, justizia nahi dugu eta errugabetasun-presuntzioa errespetatzea". Herri-asanbladatik, berriz: "honek ez du ez hanka eta ez buru, benetako zentzugabekeria juridikoa da"

### ALTSASU

Altsasuko auzian justizia eskatzeko 50.000 pertsona elkartu ziren larunbatean Iruñean (38.000 Iruñeko Udaltzaingoaren arabera eta 30.000 Espainiako Gobernu Ordezkaritzaren arabera). Golem zinemen eta Gaztelu plazaren arteko 1.815 metroko ibilbidea bere osotasunean bete zuen jendetzak. *Ez da terrorismoa. Justizia. Altsasukoak aske* leloa zuen pankarta eraman zuten gurasoek eta Altsasukoak aske herri-asanbladako kideek. Jende artean eta haien txaloak entzunez zabaldu behar izan zuten tartea bidea egiteko.

Gurasoen izenean Gotzon Urritzolak eta Bel Pozuetak

hartu zuten hitza eta esan zuten: "lehen unetik goizalde hartako gertaerak sentitu ditugu eta inoiz ez zirela gertatu behar esan izan dugu". Eta gogorarazi zuten, "ordutik, "elkarbitzita, askatasuna, justizia eta giza-eskubideen alde egin dugu. Ez dugu inpunitaterik eskatzen, justizia nahi dugu eta errugabetasun-presuntzioa errespetatzea".

Gertakariak "ekintza terroristar" gisa auzipetu behar direla eta gazte auzipetuen gurasoek aitortu zuten, "exajerazioa, distortsioa, neurrigabetasuna hain da handia, beldur garela gure seme-alabek espetxe zigor handiak jasoko dituztela nahiz

eta kasuaren larritasunarekin bat etorri ez".

Gaztigatu zuten, "auzia ez da batzuen eta besteen alde egotea, denendako oinarritzko eskubideen alde egotea baizik. Jokoa dagoena ez da bakarrik gure seme-alaben etorkizuna. Eskubide eta oinarri demokratikoak daude jokoa, esaterako errugabetasunaren presuntzioa, epaile naturalarekiko eskubidea, legearen erabilera ez estentsiboa, proportzionaltasunaren oinarria, edo defentsarako eta epaiketa inpartzialarekiko eskubidea". Galdera luzatu zuten: "oinarri demokratikoak urratzen utziko dugun gehiegizko aktuazio me-

diatikoaren, politikoaren eta judizialaren bidez?" Urte eta erdian "elkartasunaren altxorra" jaso dutela nabarmendu zuten. Balorazioan esan zuten, "gero eta gehiago eta anitzagoak dira hau ez dela terrorismoa, neurritz kanpoko dela esaten eta justizia aldarrikatzen duten ahotsak".

### Altsasukoak aske

Herri-asanbladako ordezkariak larunbateko Iruñeko manifestazioan adierazi zuten, "gizarteak ulertu du honek Sakana gainditzen duela. Denok gaude auzipetuen aulkian, botere-abusu honek eskubideak eta askatasunak kaltetzen dituelako". Azaldu zuten, jendeak "justizia eskatzen du, elkartasuna erakusten du. Horrek guztiak erakusten du ez direla bakarrik egongo auzipetuen aulkian. Ezta Altsasu ere. Askoz jende gehiago egongo da auzipetuen aulkian, eskubideak eta askatasunak kaltetzen dituen botere-abusua delako".

Auziaren inguruko hainbat aspektu ere nabarmendu zituzten. Batetik, auzipetuei "epaitegietan norbere kabuz aurkezteak ez zuten ezertarako balio izan. Gau hartan gertatu zena argitzeko gogoia erakusteak ez zuten ezertarako balio izan. Hartutako kautelazko neurriak erabat neurritz kanpokoak dira, gazteak kriminalizatzeko eta aldarrikapen erabat legitimoak isilarazteko". Jazarpena eta isunak ez direla eten nabarmendu zuten. Bestetik, zigor kodearen 2015eko moldaketa nabarmendu zuten, "oso kritikatu izan zena arbitrarioa zelako eta modu estentsiboa aplikatu zitekeelako. Gaur egun, badakigu zein den bere helburua: gizarte hau isilarazi eta beldurtu". Gaztelu plazatik 500 kilometroko berrakadak bidali zituzten Navalcarnero, Aranjuezko eta Estremarako espetxeetara; Oihani, Jokini eta Adurri. Eta haien askatasuna exijitu zuten.

Manifestazioaren antolakuntza aparta izan zen. Esaterako, Aniz-

tasun funtzionala duten pertsonendako agertoki ondoan espazioa gorde zuten eta han gurrildun aulkian zeuden dozena bat pertsona baino gehiago egon ziren. Manifestazioarekin batera iritsi zirenek ezin izan zuten gune horretaraino iritsi. Osasun zerbitzuak DYako boluntarioak arduratu ziren. Antolakuntzan 200 pertsonak parte hartu zuten. Batzuk karpak edota eszenatokia jartzen eta kentzen, segurtasunean edota kamixetak eta bestelakoak saltzen aritu ziren besteak. Baita garbiketan ere. Izan ere, manifestarien atzetik kaleak garbi uzteaz arduratu zen talde bat izan zen.

### Kontzentrazioak

Epaiketak irauten duen bitartean, egunero Altsasuko udaletxe parean kontzentrazioa egiten da 20:00etan. Bestalde, asteartean Alde Hemendik erasotuen aldeko kontzentrazioa deitu zuen eta milatik gora pertsona elkartu zituen. Parte-hartzaileen artean UPN, PSN, PP, Ciudadanos eta haien gertuko elkarteetako ordezkariak izan ziren.

Fernando Savaterrek esan zuen guardia zibilak zirenak, zirelako kolpatu zituztela eta gainerratu zuten: "ETAk diseinatutako Alde Hemendik kanpainako eskuliburuari segituz egin zena dena". Erasoaren ondorengo mekanismoa salatu zuen, zeina "biktimak borroketan eta borroketan kausa zintzo batekin konprometitutako herritarretan bihurtu zituen". "Hilabeteetan Nafarroako erakunde publikoak erasotzaileen alde egon dira. Justizia boterea presionatzen saiatu dira eta gertakariak larritasuna kendu diete!" Larrizatz jo zuen erakundeak "biktimizekiko elkartasun keinu txikiena" agertu ez izana.

**"MANIFESTAZIOAREN LELOAREKIN BAT EGITEN DUTENAK GERO ETA GEHIAGO DIRA"**



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Madrilera astelehenean joandako altsasuar taldea auzitegiaren kanpoko aldean. UTZITAKOIA

#### ALTSASU

Espainiako Auzitegi Nazionalak Altsasun 2016ko lastailaren 15ean gertatutakoa "terrorismo delitua" izan ote zen epaitzen hasi zen astelehenean. Zigor Kodearen 573. artikulua ezartzen dituen baldintzak Altsasuko kasuan bete ziren edo ez erabaki behar du epaileak. Adur, Jokin eta Oihan espetxetik eraman dituzte epaitegira. Jon Ander, Julen, Aratz, Iñaki eta Ainara 32 senide eta lagunekin batera sartzen dira eraikinean. Egutero 32 dira altsasuarren aldetik publiko gisa sartu daitezkeenak.

Auzitegiaren San Fernando de Henaresko (Madril) egoitzan astelehenean entzun zen estreinakoz zortzi auzipetuen bertsioa. Guardia Civilaren bertsioa errefusatu zuten eta gau hartan egin zutena xehe kontatu zuten. Gainera, Ospa mugimenduko kide izatea ukatu zuten.

#### Astelehena

**Jokin** izan zen hitz egiten aurrena. Lagun bat Erasmusean Pragara zihoala eta hura despeditzeko ospakizuna izan zutela azaldu zuen. Une batean, edanda zegoela, koadrilatik banandu eta Koxka tabernan bukatu zuela azaldu zuen. Han tenientea ezagutu zuen eta harekin eztabaida hasi zuen: "aurpegiatu nien azal gogorra behar zela isunak barra-barra jarri ondoren haiek jaso dituzten herritarrak joaten diren taberna batera parrandara joateko. Tenienteak

# Altsasuko auzia, bide erdia egina

Zortzi auzipetuek guardia civilei jo zituztela eta Ospa mugimenduko kide izatea ukatu dute. Guardia civilek eta bi emakumezkoek salaketa berretsi dute, eta akusatu batzuk identifikatu dituzte. Heldu den astean perituen txanda izanen da

nire izenaz deitu ninduen eta horrek molestatu ninduen. Minutu bateko kontua izan zen". Irainak eta mehatxuak egitea ukatu zuen, edo ez du gogoan. Esan zuenez, ondoren zalaparta sortu zen, bultzadak hasi ziren eta tabernatik atera ziren. Bera, antza bizkarrez zegoen eta ez zuen gertatutakoa ikusi, tabernan jarraitu zuen eta 10 bat minutura atera omen zen. Tenientea lurtean ikusi zuen eta bikotekidea gainean hura babestu nahian. Tentsioa nabaritzen zela eta bera pareko tabernara joan zela esan zuen. Ondo-

**"BENETAN SENTITZEN DUT OHARKABEAN EGINDAKO ZERBAITEK GERTAEROK ERAGIN IZANA"**

ren Foruzainek identifikatu eta atxilotu egin zuten eta horrek jendearen protestak eragin zituela azaldu zuen. Erresistentzia jarri izana ukatu zuen. Eta argudiatu zuen edanda zegoelako atera zela poliziaren autoko atzeko aldetik.

Inor jo izana ukatu zuen eta damu agertu zen: "ez nuen ezer probokatu nahi izan. Testuinguru hartan, tenientearekin eztabaida hasi izanak eragin zezakeen ondoren gertatutako guztia. Hala bada, benetan sentitzen dut oharkabea, mozkor nengoelako, egindako zerbaitek gertaerok eragin izana".

Egun hartan eta hilabetera egindako deklarazioan eztabaidatu izana eta guardia civilak ezagutzea ukatu zuen. Aurrenekoan edanda zegoela eta bigarrean auziak hartutako taina ikusita bere burua erru-

gabetu nahi zuela argudiatu zuen.

**Adurrek** esan zuenez, 02:30erako etxean zegoen, baina Pragara bidaiari joateko zela lagunaren arrebak kezkatuta hots egin ziola, anaia etxeratu ez zelako. Horregatik, Adurri hots egin zion, eta hark, segituan, Unamunori. Telefono erregistroen arabera, sei-zazpi alditan saiatu zen hots egiten, baina aldi bakarrez hitz egin zuten. Adurrek ukatu egin zuen deia eraso antolatzeke izan zela. Esan zuen ez zela tabernan izan, eta hurrengo egunean jakin zuela zer

**"EZ DAKIT ZERGATIK DIOTEN HORI. EDO GEZURRETAN DAUDE EDO BESTE BATEKIN NAHASTU NAUTE"**

gertatu zen. Gau hartan aterako argazkietan ikus daitezke Adurrek kamiseta beltza jantzia zeramala, liskarrean kokatzen duten akusazioek gorria zeramala diote. Haien iritziz, liskarrearen ondoren gazte batzuk babestu zuten eta arropaz aldatu zen, poliziak ez identifikatzeko. "Ez dakit zergatik dioten hori. Edo gezurretan ari dira, edo nahastu naute beste batekin".

**Oihane** aitortu zuen liskarra izan zen tabernan izan zela, baina inor iraindu edo kolpatu izana ukatu zuen. Taberna barruan, aparteko toki batetik, sesioren bat zegoela ikusi omen zuen. Barrara gerturatu eta gazte baten eta gizon baten arteko sesioa baretzen saiatu zela azaldu zuen. "Ikusi nuen eztabaidagatik hitzez aurre egin nion, baina lagun batek taberna txokora eraman ninduen. Ez nuen mehatxurik egin, ez nekien agentea zenik". Handik atera zenerako liskarra bukatua zegoela esan zuen eta lagun batekin hizketan gelditu zela. Zauritutakoa Foruzainekin norbait identifikatzen ahalegintzen ari zela azaldu zuen.

Berari leporatzen diote taberna barruan tenientea bultzatzeaz, iraintzeaz eta bikotea kolpatzeaz. Salaketan esaten denaren bestelako arropa zuela ere nabarmendu zuen. Guardia Civilarekin sekula ez duela arazorik izan eta tabernan zeudenak agenteak zirenik ez zekiela gaineratu zuen.

Atxilotu ondorengo deklarazioan tabernan egon izana ukatu zuen: "beldurrez, gertaeratik ahalik eta urrutien jarri nahi izan nintzen. Gero, familiarekin eta defentsarekin erabaki genuen gertatutakoa, nik ikusitakoa, kontatzea eta Justiziarekin elkarlanean aritzea".

**Jon Anderrek** azaldu zuen pilota jaialdian eta lagunekin parrandan ibili zela. 05:00etan liskarra izan zen tabernara nahi izan zuelako joan zela esan zuen, ez hitzordua jarrita zegoelako. Hara iristean ambulanzia eta Foruzainak ikusi zituen. Orduan inork ez zuela identifikatu azaldu zuen.

Bere burua "baketsutzat" jo zuen. Agenteetako baten bikotekidea institututik ezagutzen zuela azaldu zuen. Bere identifikazioa "nahasmenagatik eta asmo txarrik gabe egin zela" uste du. Politikaz gauza handi-

rik ez dakiela, inoren kontrako gorrotorik ez duela azpimarratu zuen. Guardia Civilak leporatu dio gau hartako datuak ezabatzea, Whatsapp aplikaziko mezuak borratzeagatik. Berak esan zuen ikertzaileei telefonorako sarbide kodeak eman zizkiela. Eta gogorarazi zuen epaitegira borondatez aurkeztu zela.

**Julen** Jon Anderren laguna da txikitatik. Lagunekin elkarrean afaldu ondoren liskarra izan zen tabernan 01:30etik 06:00etara egon zela esan zuen, gogoko taberna duelako. Une batean sarrera aldean 10-12 pertsonen zalaparta ikusi zuela, baina erasorik edo irainik ez zuela ikusi gaineratu zuen. Berak parrandan segitu zuen. Komunikatuz ateratzean ezer ez zegoela esan zuen. Guardia Civila tarteko zegoen zerbait izan zitekeela ez zuela pentsatu gaineratu zuen. Liskarra izan zen tabernan halakoak ugariak direla gaineratu zuen eta ziurtatu zuen Jon Ander ez zela tabernan izan. Halako bortizkeriaren zale ez dela gaineratu zuen. Inongo kolektiboetan parte hartzen ez duela gaineratu zuen. Hurrengo egunean jabetu zen gertatutakoaren tamainaz.

**Aratzek** azaldu zuenez, lagun batzuekin kale-edana egin ondoren joan zirela liskarra izan zen tabernara, baina 03:30ean joan zela gaztigatu zuen, "edo beste taberna batera edo etxera". Auzipetuak tabernan ez zituela ikusi gaineratu zuen. Liskarra izan zenetik bere telefono mugikorra ez zuela manipulatu esan zuen. Eta akusazioek ezin izan dute opatu bera ustezko telefono bidezko hitzordu batera joan zenik. Liskarraren ondorengo egunean egin zen kontzentrazioan parte hartzeagatik isuna jarri ziotela azaldu zuen. Eta gogorarazi zuen bere borondatez aurkeztu zela epaitegian. Inolako mugimendurekin loturak ukatu eta sekula ez duela istilurik izan gaineratu zuen.

**Iñakik** argitu zuen beste lokal batean bere tabernari lana 03:00etan despeditu zuela. Dena gertatu ondoren, Foruzaingoaren autoa ikusi eta jakin-minez gerturatu zela azaldu zuen. "Guardiaren batekin liskarra izan zela eta Jokin atxilotu zutela esan zidaten" esan zion ezagun batek eta bere lankide zen Ainarak. Telefonoarekin bideoa grabatzen hasi zen, sar-



Astlehenean makina bat ordezkari joan ziren auzitegira, tartean Unai Hualde, Nafarroako Parlamentuko lehendakariordea.

jentruak eskuan kolpea eman eta mugikorra erori zitzaion. Telefonoa hautsia egonen zelakoan, hura jasotzerakoan kristorenak eta bi esan zituen. Baina inor ez zuela mehatxatu gaineratu zuen. Auzitegiak proba gisa onartu ez duen bideo horretan Jon Ander eta Ainara ageri dira. Grabazioa gorde zuen baina mugikorra komu-nera erori eta matxuratu zitzaion. Ainarak foruzain bati sarjentuak egindakoaz gaztigatu eta hark salaketa jartzeko esan zion. Iñakik azaldu zuen Foruzaingoaren polizia etxera joan zirela Jokinen egoera zein zen jakiteko. "Han tentsio gehiago zegoen eta alkateari hots egin nion gertatzen zenari buruzko argibideak jaso zitzaion". Orduan identifikatu zuten foruzainek. Politikaz "paso" egiten zuela aitortu zuen.

**Ainarak** esan zuen ez zela liskarra izan zen tabernan izan. Beste taberna batetik etxera zihoazela ambulanzia eta Jokin atxilotu zutela ikusi zuten. Horrek zirrarara eragin ziola eta liskarraren alde batekoak soilik atxilotzea leporatu zion polizia. Urduri zegoela eta onetik atera zela eta polizia ez zela ezer

## TELEFONOAREKIN BIDEOA GRABATZEN HASI. BIDEOA EZ DUTE PROBATZAT ONARTU EPAIKETAN

egiten esan ziola gaineratu zuen. Iñakiri telefonoa lurrera bota ziotela ere bai. Ukatu egin zuen agente baten bikotekidea mehatxatu izana.

### Identifikazio errondak

Auzipetuen defentsek epaiketak behar dituen bermeak aipatu zituzten. Eta Oihani, Jon Anderri eta Juleni egindako galdeketatik gertaera susmagarri bati egin zioten aipamena: Espainiako Auzitegi Nazionalen egindako identifikazio erronden osaketa.

Altsasuarrak ez eta latinoamerikarrak, beltzaranak eraman zituzten auzipetuekin batera. Julenek esan zuenez, "hariatako batek ez sartzeko esan zidan, txuri bakarria nintzelako", dio Goikoetxeak. «Ez genuen antz handirik, eta presoetako batek esan zidan ez zela zaila ni identifikatzea». Oihane esan zuen denak latinoamerikarrak zirela, ukrainiar bat eta bera salbu. Gogoratu zuten gazte altsasuarrez betetako autobusa joan zela Madrilerara proba fidagarriago egin nahian baina ezinezkoa izan zela haien parte-hartzea.

### Ospa Mugimendua

Akusazioek eta Fiskaltzak "terrorismo delitua" ETA, Alde Hemendik eta Ospa mugimendua elkarri lotuz planteatu dute. Horren guztiaren gaineko historia eta politika testuingurua soilik Guardia Civilaren perituek emanen dut, defentsei horretaz

aritzeko lekukoak eramatea edo probak aurkeztea ukatu dielako. Defentsetako bati eskatu zituen proba guztiak atzera bota dizkiote, "beharrezkoak ez zirelako edo gertaeren egunarekin zerikusirik ez zutelako". Onartu ez diren proben artean daude tabernako planoak edo gertaeren ondoren gertatutakoa jasotzen duen bideo bat.

Auzipetu guztiak aipatu mugimenduko kide izatea ukatu zuten. Jokinek azaldu zuen batzar irekia dela eta ez dagoela bururik. 2016ko Ospa eguneko baimenak berak eskatu zituen administrazio prozesua ezagutzen zuelako, aurretik txosnak jartzeko baimenak eskatuak zutelako. Adurrek ukatu zuen haren sustatzaile edo bozeramaile izatea. 2015ko Ospa egunean fanfarrearekin jo zuela esan zuen eta gainerako urteetan familiarekin oporretan zela. Gogorarazi zuen guardia civil baten semearekin pilotan entrenatu izan zuela. Gainontzekoek ere mugimenduko kide izatea ukatu zuen.

### Asteartea

Guardia Civilaren eta eurekin zeuden bi emakumezkoen txan-

## "SARJENTUARENGANA ZUZEN JOAN ZEN, ZERBAIT ESAN ZION ETA ERDIAN SARTU NINTZEN"

da izan zen asteartean. Agenteek bertsio ofiziala berretsi zuten.

**Oskarrek**, 24 urteko tenienteak, urtebete zeraman Altsasun. Liskarra izan zen gauean orkatileta haustura, ezpaina zartatua eta hainbat zauri izan zituen.

Bere bikotekide Maria Joserren gurasoen tabernan afaldu zutela esan zuen. Hara lana bukatu ondoren joan zirela esan zuen. Ezin izan zuen ziurtatu afaltzerakoan edan ote zuten. Iritsi berri zen sarjentuarekin eta haren bikotekidekin batera liskarra izan zen tabernara joan zirenean 02:30ean eta han bi konbinatu hartu zituzten. Ez zeudela mozkor ziurtatu zuen. Tabernan aurretik izana zela eta gau hartan beteta zegoela (80 pertsona) eta festa giroa zegoela azaldu zuen. Esan zuenez, Oihanekin ika-mika izan omen zuten hura komunera joatean "maderoa" ote zen galdetzean.

Gero "txupito bat" bota zietela eta kasurik ez zietela egin esan zuen. Tenienteak esan zuenez, Jokin sartzean hasi zen guztia (harekin auzipetutako adin txikiko neska zegoen). "Sarjentuarengana zuzen joan zen. Zerbait esan zion eta erdian jarri nintzen. Bakean uzteko esan nion. Nahiko oldarkor aurre egin zidan. Loturarik gabeko gauzak esaten zituen eta ea zergatik deitzen nion izenez". Tenienteak dio orduan hasi zela liskarra, "kolpeak bizkarrean, hanketan eta buruan". Neskak bere bikoteari ekin ziola esan zuen tenienteak. 15-20 pertsonak inguratzean alde egitea erabaki zutela. "Ez nuen aurre egin nahi, alde egitea baizik. 20 bat pertsonak korridorea egin ziguten". Atean zegoela erasotzailei aurre egiteko buelta eman zuenean bizkarrean jo omen zuten atean zain zeudenak. Kanean, ostiko bategatik lurrera erori zela eta eroria zegoela jo zutela gaineratu zuen, "konortea galtzeko gertu" zegoela esan zuen. Bera babesteko bikotekidea gainera bota zitzaizola esan zuen. Kalera atera zenerako "nahasia" zegoela gaineratu zuen. Kanean beste 15-20 zeudela esan zuen.

Lurrean zegoela bi telefono dei egiteko aukera nola izan zuen galdetu zioten abokatuek. Jasotakoa "jipoi" gisa kalifikatu zuen. Eta gertatutakoa bat-batean sortutakoa zela zalantzan jarri zuen, "gutxienez elkar gaztigatu behar zuten, kanean gure zain gehiago zeudelako".

Tenienteak argitu zuen tabernan ezer egin ez zuen jendea egon zela. "Inork ez zigun ez han ez kalean lagundu. Iraindu eta xaxatu gintuzten". Bere bizia arriskuan ikusi omen zuen. Tenienteak lau auzipetu identifikatu zituen erasotzaileen artean. Defentsako abokatuen galderek tenientearengan ahanztura eragin zuten.

**Alvarok**, sarjentuak 5 egun zeramatzan Altsasun liskarra izan zen gauean. Berak esan zuen afaltzera 20:00ak edo 21:00ak aldera joan zirela. Afaltzean ez zutela ezer edan esan zuen. Liskarra izan zen tabernara 02:30ean joan arte soilik ura edan zuela esan zuen.

Jokin "erronka eginez" sartu zela eta "oihu egiten, jarrera oldarkorrean" eta bien aurpegiak ia elkar ukitzen zutela gogoratzen zuela esan zuen. "Ez nuen ezer ulertu. Une horretan tenientearen bikotekidea, altsasuarra bera, joateko esan zien eta aterantz jo zutela. "Korridore horretan bazter guztietatik kolpeak eta ostikoak jaso genituen". Sarjentuaren arabera "bospasei" izan ziren erasotu zituztenak. Bere ustez guztia pixka bat prest zegoen, pareko tabernakoak irteeran zain zituztelako.

Behin kalean bikotekideari autora joateko esan zion. Eta bueltatzen "askoren artean tenientea jipoitzen ari zirela ikusi nuen". Tenientea tabernatik ateratzen saiatu zela baina beste batzuk bizkarretik hartu eta kalera bota zutela. "Pirriñeka ibili nintzen lurtean geldirik ez gelditzeko eta inork ez jotzeko". Bere bikotekidea erdian jarri zen eta erasotzaileetako batek ostikada batez lurrera bota zuela esan zuen. Jendeak iraindu egiten zituztela esan zuen eta Iñakiri telefonoa lurrera bota izana ez duela gogoratzen esan zuen. Foruzaingoa iristean giroa lasaitu zela eta errefortzuak iristeko denbora asko pasa behar izan zela esan zuen. Momentuan ezin izan zuen inork identifikatu. Esan zuenez, jendeak Jokin atxilotua zegoen autotik ateratzen nola lagundu zuten ikusi zuen.

Sarjentuak erasotzaileen artean zazpi auzipetu identifikatu zituen. Ainarak ez zuela parte hartu esan zuen.

**Maria Josek**, altsasuarra eta tenientearen bikotekidea, au-



Altsasuko Gurasoak taldeko Edurne, auzitegi parean, hedabideei adierazpenak egiten. UTZITAKOIA

zipetu gehienak ezagutzen ditu. Gertakariaren gauean bere gurasoen tabernan afaldu zuten eta afaltzean garagardoren bat edan zutela esan zuen. Beraren arabera liskarra Jokinen ondorioz hasi zen, "berak hasi zuen dena. Beragatik gaude gu guztiok hemen; bestela ez ginateke egongo".

**Maria Josek** esan zuen 20 inguru izan zirela erasotzaileak. Akaberan esan zuen "modu batera edo bestera taberna guztiak" parte hartu zuela. "Jazartzea ez da soilik kolpeak ematea. Jazartzea guri ez laguntzea ere bada, iraintzea edo jotzeko animoak ematea". Iñakik eta Ainarak liskarrean parte hartu ez zutela esan zuen. "Ia" ziurtzat jo zuen Aratzek parte hartu zuela. "% 90ean ziur nago parte hartu zuela, baina salaketa jarri dut erabat ziur nagoen pertsonen aurka. Lekukoan artean badira % 90ean parte hartu zutela uste dudana pertsonak, baina horregatik ez ditut salatu".

Abokatuek galdetu zioten aldamena izanda zergatik ez zuen Oihanen izena eman eta bai bere deskripzio fisikoa. Deklarazio garaian "nahastuta" zegoela argudiatu zuen. Aurreneko dekla-

**"BERAK HASI ZUEN DENA. BERAGATIK GAUDE GUZTIOK HEMEN. BESTELA EZ GEUNDEKEEN!"**

razioan Adurrek soilik bultzatu zuela esan zuen eta gero erasotu. Ez zuen aldaketa argudiatu.

Ziurtatu zuenez, herrian sekula ez zuen elkarbizitza arazorik izan, guardia civil batekin ibiltzen hasi arte. "Etxea eta dena galdu duela" esan zuen.

**Pilarrek**, sarjentuaren bikotekideak, 15 egun zeramatzan Altsasun. Aurreneko hiruren moduan berak ere "bere bizia arriskuan" ikusi zuen. Esan zuenez, liskarrean "pertsona gehiagok" parte hartu zuten. "Hor zeuden denak identifikatzeko gauza izan nahi nuke". Baina herrian denbora gutxi zeramalako ezin zituela identifikatu esan zuen.

Laurek bina deklarazio egin zituzten. Aurrena eraso eta ordu gutxira. Tenientearen kasuan ebakuntzaren ondoren izan zen. Eta bigarrena azaroan. Maria Josek foruzainen aurrean egin zuen eta gainontzekoek guardia civilei. Amaia Izko abokatuak tenienteari galdetu zion foruzainen aurrean egin behar zuen deklarazioa azkenean zergatik ez zuen egin eta horretan Guardia Civilaren zuzendariaren bisitak zerikusia ote zuen. Bere osasun egoeraz kezkatu zela eta agindurik ez zuela jaso erantzun zuen.

#### **Asteazkena**

Lekukoan txanda hasi zen herenegun. Liskarra izan zen tabernako zerbitzari Nairak jakinarazi zuen teniente eta

bikotekidea "ohiko bezeroak" zirela eta askotan ikusi zituela biak taberna ixten. Esan zuenez, ez zekien guardia civila zenik. Liskarra izan zen garaian tabernan 30 bat pertsona izan zirela azaldu zuen. Argitu zuenez sarrerako bi ateen arteko espazioa 4 m<sup>2</sup>-koa da eta han "gehienez 10 pertsona sartu daitezke" esan zuen. Ataria beti argiztatua dagoela azaldu zuen eta berak ez zuela ezer arrarorik nabaritu esan zuen. Tabernan 30-35 pertsona izan zirela esan zuen. Eta liskarra izan eta gero jendea tabernan parrrandan gelditu zela, horien artean Oihan Arnanz. Julen han zegoen baina ez zuen ezertan parte hartu. Adur eta Jon Ander ez zeudela gaineratu zuen. Nagusiaren bidez jakin zuela liskarrean eta ordurako ambulanziaz teniente eramana zuela esan zuen. Kalera atera eta Iñakirengana hurbildu zen, eta hark zer gertatu zen ez zekiela esan ziola.

Tabernako nagusi Josuk ezer ez zuela ikusi esan zuen. Kalera atera zenean sarjentua bere onetik aterata ikusi zuela esan zuen eta tenientearen egoeratik kezkatuta bere jaka utzi ziola. Foruzainei komentatu zion 20 urtean ez zuela ikusi kolpeen ondorioz orkatila hautsirik eta sarrerako koxka handiaren ondorioz zauritu zitekeela iradoki zion. Josuk bi egunetara foruzainen aurrean deklaratu zuen. Idatziaren arabera "borroka

antolatua" izan zela esan zion. Herenegun halakorik ukatu zuen. Eta epaitegian dagoen deklarazioak ez du bere sinadurarik, beraz, baliogabea izan daiteke. Josuk gaineratu zuen ez zituela Adur, Aratz eta Iñaki ikusi. Eta Ainarra beste taberna batean ikusi zuela.

Liskarra izan ondoren iritsi ziren (04:30ak pasa) bi foruzainek "tentsio handia" nabaritu zuten. "Argi zegoen liskarra izan zela". Teniente lurrean opatu zuten, "erdi kontziente", erantzuteko gai ez zela. Sarjentua berriz, "negarrez" ari zen eta "asaldatuta" zegoen. Ator zuria oinetako zolez markatua zuela esan zuten. Lehenik, teniente artatu zuten eta gero sarjentua eta bere laguna. Sarjentuak jendea atxilotzea nahi zuen, baina Foruzaingoa egoera mantentzen ahalegindu zirela esan zuen. 40 bat pertsona "txantxa giroan" zeudela esan zuten. "Argi zegoen bazekitela agenteak zirela".

Sarjentuarekin aldameneko tabernara jendea identifikatzera joan zirela eta Jokin atxilotu zutela. Orduan Ainarra hura bizidetzeko ez zela eta autotik ateratzen ahalegindu zela esan zuten. Polizien arabera mozkor zegoen, baina Pilar mehatxatzen ez zuten entzun. Anbulantzia joan zenetik errefortzuak etorri arte ordu erdi pasa zela esan zuten. Pilarrek "inarrosi" zituztela esan zuen. Foruzain batek esan zuenez, "astinaldia izan zen, eta kitto".

Atzokoan tabernako beste zerbitzariak, Cristinak, esan zuen ez zuela ezer ikusi eta uste du ez zeudela "gehiegi edanda". Beste lekukoek esan zuten Oihanek ez zuela taberna barruko liskarrean parte hartu eta Aratz, Iñaki eta Jon Ander ez zeudela han gaineratu zuten. Lekukoetako batek barruko liskarrean deskripzioa egin zuen eta laukotea kalera bultzaka atera zutela esan du. Aldi berean, Guardia Civilak identifikazioak egiteko erabilitako 15 orriko argazki sortetan auzipetuak ibarrekoak ez diren pertsonen inguratuta agertzen zirela.

Heldu den ostiralean despedituko da epaiketa. Auzipetuak zigortuko balitu, Auzitegi Nazionalako Apelazio aretora jotzeko aukera izanzen lukete. Gorena, Konstituzionala eta Estrasburgokoa lirakeke joko lirakeen hurrengo atean.



ASTEKOA

ANABEL ARRAIZA

## Altsasu

Idatzia egitea eskatzen zaidanean, gehienetan gaiaren aukeraketa bat egin behar izaten dut buruan bueltaka ditudan aukeren artean. Kasu honetan, beste gertakari batzuk izan diren arren, ez dut inolako zalantzarik izan. Lehentasuna, ez hanka ez buru ez duen injustiziak bideratutako larunbatean Iruñean izandako manifestazioak du.

Idatzia hau, epaiketa hasi baino lehen idatzia dago, beraz aste honetan gertatutakoek ez dute eraginik, manifestazioaren biharamuneko hitzak dira hauek.

Gizartea minduta dago, haserre, nazkatuta eta aurreikusi bezala hitzordu handi baten aurrean geundela somatzen zen. Goizean goizetik Iruñeko kaleetan jendea pilatzen hasia zen. Eguzkia ere agertu zen aspaldiko partez, baina berotasuna gerturatutako milaka eta milaka herritarrek ekarri zuten.

Ikaragarria da herri honek elkartasuna erakusteko duen gaitasuna. Manifestazio erraldoi baten lekuko izan ginen. Iruñea lehertzeaz zegoen, herria bizirik dago eta Iruñea txiki geratu zen. Hiriburuak bizi izan duen agerraldi handiena ez bada, handienetako bat izan da behintzat.

## EMOZIOA AZALERATU ZEN LARUNBATEAN, MALKO UGARI IKUS ZITEKEEN BEGIETATIK IHES EGITEN

Emozioa azaleratu zen larunbatean, malko ugari ikus zitekeen haur, gazte zein helduren begietatik ihes egiten. Bihotzen taupadak soma zitezkeen eta amorrua elkartasun bihurtu zen. Herri

baten seme-alabak defendatzeko indarra bildu zen eta denen ahotan hitz bat: justizia.

Handia da gure herria, handiak gure nahiak eta beste behin ere Euskal Herriaz harro egoteko arrazoiak ditugula argi eta garbi geratu dira. Ez da terrorismoa.

## ZUZENKETAK

Aurreko zenbakian Euskaraldian izena eman duten herrien berri eman genuen. Hau izan da zerrenda zuzena: Irurtzun, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Urdaian.

Joan den ostiraleko zenbakian, 3. orrian, Altsasuko auziari buruzko grafikoa atera genuen. Oker eman genuen fiskaltzak Ainararendako eskatutako zigor eskaera, 50 urte beharrean 12koa baita.

## HARA ZER DIEN

### Urrunketa: kalteak eta eraginak adin nagusiko pertsonengan

#### SAKANAKO SENIDEAK

Horixe dugu Etxeraten [www.etxerat.eus](http://www.etxerat.eus) web gunean ikusgai dagoen azken txostenaren izenburua. “Dispersioaren haurrak” adin txikikoengan duen eragina aztertzen zuen bezala, oraingoan adineko pertsonen pairatu behar izan duten eta pairatzen duten sufrikarioa jorratzen du. Honela dio txostenak, hitzez hitz, bere hitzaurrean:

“Urruntzeak familia-bizitzarako eskubidea urratzen du. Urruntzeak ez ditu bisitak debekatzen. Urrundutako preso guztiek legez ezarritako bisita kopurua eta denbora dute. Baina, bisita horiek egiteko baldintza batzuk bete behar dira, zalantzarik gabe muturreko baldintzak

direnak; baldintza horiek bisitak bermatu orde, zaildu egiten dituzte, eta horrela familia-bizitzarako eskubidea urratzen dute.

Urruntzeak euskal preso politikoen senitarako eta hurbilekoengan dituen ondorio gogorak kolektibo horrekin familia-loturak edo lotura afektiboak dituzten pertsona guztiek jasaten dituzte, salbuespenik gabe. Pertsona guztiak modu ezberdinean ukitzen ditu, beti modu negatiboan ukitzen baditu ere, eragin gehiago du sektore zaugarrienetan: haurrak, pertsona gaixoak, adineko pertsonak... eta familia-loturak zenbat eta estuagoak (gurasoak, seme-alabak, bikoteak, anaia-arrebak), orduan eta eragin gehiago du.

Ez da erraza gizarteari adieraztea urruntzea nola bizi izaten den edo milaka hiritar euskalduni egin dion eta egiten dion kaltea zenbaterainokoa izan den. Aurkeztu genuen jadanik haurrengan eta adingabeengan urruntzeak dituen ondorenei, bizipenei eta arrastoei buruzko txostena. Oraingo honetan sektore zaugarrienetara eta, beraz, urruntzearen eragin handiera jasaten dutenetara bideratu nahi dugu arreta: pertsona adinduengana.”

Espaniar estatuak ez du salbuespeneko espespe politika hori bertan behera utzi nahi eta horrexegatik erakundeek, alderdi politikoez, sindikatuek, giza kolektiboek eta oro har euskal gizarteak oztopo eta muga horiek gainditzeko ahaleginak areagotu behar ditugu, bakea eta elkar bizitzaren norabidean abiatu gaitzen.

## OBJEKTIBOTIK



### Herri txiki infernu handi Urdaianen, igandean, ETB1en

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gixane Andueza Golkoetxea  
admin@guaixe.eus

#### Kolaboratzaileak:

Erkuden Ruiz Barroso  
**Zuzentzailea:**  
Felix Alzelai Iriarte

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107  
618 882 675  
661 523 245

#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kiriolak@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**

# 80 urteren ondoren, egia gelditzen da

Victor Urkijo Tobalina Otsaportillon erail zuten eta haren gorpua bertan egon da, Aranzadi Zientzia Elkarteak lastailean jaso zuen arte. Bide gogorra izan dela esan du Amaia Urkijo Artola bilobak, baina emaitza hoberenarekin amaitu dela bilaketa

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Ekitaldi xumea izan zen. Urkijoren familia eta lagunak zeuden. Mahaiaren gainean, Errepublikako banderaren gainean, kutxa bat: Victor Urkijoren hezurdurak zituena. Ondoan, Urkijoren erretratua eta bi argazki zahar; “ez daudenak ere hemen egoteko”.

Amaia Urkijoren bi aitonak fusilatu eta leize batean bota zituzten. Baina ez ziren ahaztuak izan. “Bide gogorra izan da, lan handia izan da. Baina hau loteria tokatzea bezala izan da guretako”. Familia ondoan izan du Amaiak, eta hari eskerrak eman dizkio. Ekitaldian egon ezin zirenak ere gogoan izan ditu.



Victor Urkijo Tobalinaren hezurdurak familiari eman zitzaizkion unea. ERKUDEN

## Memoria

Memoria ekitaldia, ariketa bat. “Familiak erakutsi dit memoria bizirik irauten, eta guk memoria bizirik mantentzen jarraituko dugu. Nire aitonaren memoria, baita errepresaliatu guztiena ere”. Egun berezia zen Urkijotarrendako, are gehiago Amaia-arendako, izan ere, lan handia egin du bere bi aitonak bilatzen: “nola sentitzen naizen? Oraintxe bertan bihotza gorputzetik atera behar zait”. Une hunkigarriak bizi izan ziren ekitaldian. “Egia bakarrik gelditzen zaigu. Justizia, egia eta erreparazioa esaten

dute. Baina justizia ez dago, argi ikusi dugu. Erreparazioa berandu dator. Egia gelditzen zaigu”.

Ana Ollo kontseilariak entregatu zizkion familiari Victor Urkijoren hezurdurak. Gainera, senidearen hezurak aurkitzeko, lurpetik ateratzeko eta identifikatzeko prozesuaren txostena eman zien. Urkijotarrei eskerrak eman zizkien amore ez emateagatik eta aurrera jarraitzeagatik. Victor metalurgiako sindikatu-ko presidentea zen, UGTkoa, eta horregatik erail zutela salatu zuen Ollok. “Mundu justuago

bat eskatzeagatik, libreagoa, erail zuten”. Memoriaz aritu zen Ollo ere: “Memoria ez duen herri batek, amnesia duenak, ez da inoiz demokratikoa izango”.

## Otsaportillo

Lan handia egin zuen Amaiak, bidea luzea izan da. 80 urtekoa, hain zuzen. Familiak haren senidea aurkitu du, baina “memoria historikoaren alde lan handia egin behar da oraindik”. Horretan dabilta Aranzadi Zientzia Elkarteak, beste urte batez, eta hirugarrena da, Na-

farroako Gobernuarekin hitzarmena sinatu duela. Aranzadik aurkitu zituen Urkijoren hezurdurak Otsaportillon. Gainera, gobernuak DNA bankua sortu zuen 2016an ere identifikazio lanetan ezinbestekoa dena.

1936ko agorrilaren 27an fusilatu zuten Victor eta Otsaportilloko leizera bota zuten. Aranzadik 2016ko irailean egin zuen lehenengo indusketa han. Hezurdura asko aurkitu zituzten metalezko kutxa batean. Bertan bederatzi pertsonaren hezurdurak zeudela azaldu du Lourdes Errazti Aranzadiko kideak. Baina ez zeuden Urkijorenak. “Familiak disgustua hartu zuten, pentsa”. Hala ere, familiaren DNA frogak egiteko lagin genetikoa hartu zuten.

2017ko lastailean Aranzadiko kideak Otsaportilloko leizean barneratu ziren beste behin. Uste zuten han hezur gehiago egon zitezkeela, “ustea baino ez zen” eta harriak eta materiala kentzera joan ziren. Harri guztien azpian, aurkitu zituzten bi eskeleto: “zortea izan genuen”. Aurretik lagin genetikoa hartuak zituztenez, hezurdurak laborategira eraman zituzten eta erraz identifikatu zituzten: Urkijo eta Bergara ziren.

## Memoria erreparatzeko lanak

“Nahi dugun memoria gara, aitortzen dugun erresponsabilitatea gara. Memoriarik gabe, ez gara existitzen, eta erantzukizunik gabe, agian, ez ginateke existitu behar”. Zer egin genuen guk hemen 36arekin? Galbino Garcia de Albizuren liburuaren aipu bat da Amaia-aren hitzetan ekitaldian aipatutakoa. Memoria egitea gelditzen zaie. Hezurdurak aurkitzeko familien interesa eta laguntza ezinbestekoa dela azal-

du dute Erraztik eta Josemi Gaston gobernuko memoria arduradunak. Familek esan ohi die, haien senideak non dauden uste duten. Hala ere, denborarekin ere jolasten dute: “82 urte pasa dira eta memoria oso ahula da. Lehen leku batean zena orain ehun edo berrehun metroa izan daiteke”.


Denbora ere hezurduren identifikaziorako garrantzitsua da. Otsaportilloko hainbat hezurdura identifikatu gabe daude, eta bai Amaia baita Ollok ere identifikatzea espero dute. Gobernuak DNA bankua sortu zuen. Hortaz, hezurdura bat lurpetik ateratzen dutenean Nasertic enpresara bidaltzen dituzte identifikazio lanekin hasteko Gastonek azaldu duenez. “Otsaportilloko hezurdura asko gaizki kontserbatuta daude metalezko kutxa batean zeudelako eta oxidoak kutsatu dituelako. Urkijorekin suertea izan dugu eta oso erraza izan da. Beste batzuetan denborak degradatu ditu”.

Denbora, berriz, kontra dute. Laster bi prospekzio berri egingen dituzte Anozibarren eta Oltzan. Gainera, Lizarrustin indusketak egiteko aurre-txostena prestatzen ari dira, baita Nafarroa eta Arabako mugan egon daitekeen beste hobi komun bat ere. “Ez dakigu Nafarroako pertsonak egon daitezkeen bertan, baina ikertuko dugu”. Olatzagutiko eta Etxarriko memoria elkar-teekin harremanetan daude hilobi berriak bilatzeko asmoz.

**"MEMORIARIK GABE, EZ GARA EXISTITZEN, ETA ARDURARIK GABE, AGIAN, EZ GINATEKE EXISTITUKO"**

## Esataria: Mainer Gaurko gaiak:

- Sakanako herri eskolen festaren aurkezpena
- Manolo Campos etxarriko alkate ohia, intsumisio epaiketaz
- Burundar Txistularien eta Etxarriko abesbatzaren kontzertuaz



Ostiralero 9:30ean  
**SAIOA**

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara

107.3 FM  
**beleixe**  
guaixe.eus-en ON LINE



Arbizun, Xabier Reyregatik egin zen kontzentrazioa. ARTXIBOA

## Elkartasun eguna antolatu dute Arbizun larunbaterako

Preso eta iheslarien egoera mintzagai, hitzaldia, bertso afaria, manifestazioa eta kontzertuak antolatu dituzte

ARBIZU

Arbizuko preso eta iheslarien aldeko taldeak eta aurten 50. urteurrena bete duen Argi-Bidea gazte elkarteak Elkartasun Eguna antolatu dute larunbatean, apirilaren 21ean, Arbizun. Ekimenarekin preso eta iheslarien egoera eta Herrira mugimenduaren kontrako epaiketa azalerazi nahi dituzte.

Elkartasun Eguna, Espe Iriartek eta Teresa Todak Foro Sozialaren inguruan 11:30ean eskainiko duten hitzaldi batekin hasiko da. Ondoren,

14:30ean, herri bazkaria antolatu dute. Bazkaldu ondoren Miren Amuriza eta Julio Soto bertsolariak ariko dira. Arratsaldean, 19:00etan zehazki, manifestazioa eta ekitaldi nagusia izanen dira, "Preso eta iheslariak etxera" lelopean. Eta hura bukatuta, Argi-Bideak gazte elkarteak Atzapar Rock talde gaztearen kontzertua hartuko du, 20:30ean.

Afaldu eta indarrak berreskuratu ondoren, Nafarroa 1512 eta Alerta Gorria talde arbizuarren kontzertua izanen da Argi Bidea gazte elkartearen.



UTZITAKOA

## Beilatokiarekin konforme ez

Gaur mustuko da Altsasuko Izarra beilatokia, Altsasuko Alde Zaharreko Gurutze Saindua kalean. Inguruko hainbat auzotarrek atzera ere bilkura egin zuten. Auzotarrek diotenez, "Sakanarendako zerbitzu on bat dela pentsatzen segitzen dugu, baina kokapena ez da egokia". Bizilagun hauek ia hasi ziren mobilizatzen, beilatokia toki egokian jartzeko eskatuz.



Urtero bezala, apirilaren 14ean Altsasun elkartu ziren.

## Carreño: "II. Errepublikatik oso gutxi egin dugu aurrera"

II. Errepublikaren aldarrikapenaren 87. urteurrenean ekitaldia egin zuen Ezker Batuak Altsasun

ALTSASU

Larunbatean Espainiako II. Errepublika aldarrikatu zela 87 urte bete ziren. Ezker Batuak ekitaldia egin zuen Altsasun, Soldadu Langile Batailoieta ibili zirenen omenezko oroigarriaren ondoan. Atzetik Himno de Riego doinuak entzuten zirela, lore eskaintza egin eta errerepublikaren aldeko manifestua irakurri zuen Arturo Carreñok.

Orduko balioak goraiatu ondoren, ordutik 87 urte pasa direla eta "justizia sozialean, aberastasunaren banaketan, emakumeen eta gizonen arteko

berdintasunean eta guztiendako berbera den justizian oso gutxi egin dugula aurrera" ondorioztatu zuen. "Une hauetan, gizartea inoiz baino zigortuagoa dago: ia 4 milioi langabetu, jatekorik ez eta Elikagai Bankuetara eta beste erakundeetara jo behar dutenak, pobrezia larrian dauden 3 milioi pertsona... eta, bitartean, ustelkeria inoiz baino hedatua dago eta inork ez du egoera konpontzen" azaldu zuen. Pentsiodunen borroka, atzerrira lanera doazenak, prekarietatea, AHT eta Altsasuko auzia ere gogoan izan zituen Carreñok.

## European Alliance Taldeak Altsasuko auziaz kezka azaldu du

Eskualdeen Batzordeko European Alliance Taldeko presidente Vanlouverekin bildu da Mikel Irujo

ALTSASU

Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkariak, Mikel Irujok, Eskualdeen Batzordeko European Alliance Taldeko presidente Karl Vanlouverekin lan bilera izan berri du. Beste hainbat mintzagaien artean, Irujok Nafarroako Parlamentuak Altsasuko Auziaren inguruan onartutako eta Nafarroako Gobernuak ondoren bere egindako erresoluzioaren berri eman dio Vanlouverri.

Nafarroako Gobernutik azaldu dutenez, Altsasuko auzian epai-

tzen ari diren gertakariei terrorismo kalifikazioa eman izanagatik "sorpresa" adierazi du Karl Vanlouverrek, eta Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako Gobernuaren erresoluzioaren berri Europako Kontseiluan dauden bere ordezkariak emateko konpromisoa azaldu du. Kontseiluaren barruan dago Europako Giza Eskubideen Auzitegia.

Halaber, Flandiako Parlamentuko kide denez, Flandiako Parlamentuan kasuaren inguruko erresoluzioa aurkeztea aztertuko du Vanlouverrek.

## Alk terrorismo karguak kentzeko eskatu du

Amnesty International epaiketan begirale ari da. Bere iritziz ohiko auzitegi batean epaitu behar zen

ALTSASU

Amnesty Internationaleko (AI) Espainiako buru Esteban Beltranek esan duenez, "terrorismo tipoa modu neurrigabea zabaldu ditu Espainiako legediak, eta kasu hau horren adibidea da". AIko kidearen iritziz aipatu legedia "zigor Zuzenbidearen eta Nazio Batuen Erakundearen hainbat errelatoretan argitutzeko argitasun eta zehaztasun irizpideetatik urrun dago".

Beltranek aitortu du gertaerak "larriak" direla eta guardia zibilek eta euren bikoteek "iker-keta judizial baterako eskubidea" dutela. Baina kezka adierazi du 2015ean Zigor Kodean egindako erreforma "terrorismoa ez diren jokabideak kalifikatzeko eta zigortzeko erabili daitekeelako". Legearen erreforma "atzera pausotzat" jo du. Gertaeren ikerketa ohiko epaitegi batek egin beharko lukeela uste dute AI. Gogorarazi dutenez, "epaiketa aurreko kartzelaratzeko ezohiko neurria izan behar du", Adur, Jokin eta Oihan gogoan dutela.

Bidezko epaiketarako eskubidea izanik IAk kezka azaldu du "epaileek nahikoa argudiatu gabe defentsen proba eta lekuko garrantzitsuak atzera bota dituelako". Epaietari adi erreparatuko diotela gaztigatu dute, "nazioarteko zuzenbidean jasotakoa bete dadin, hau da, alde guztiak bitarteko berak eta baldintza berdinak izan ditzaten".

AI aurretik auzipetuetako batzuekin, haien abokatuekin, familiekin, erasotuetako batekin eta Coviterekin elkartu da. "Altsasun bizi den erasotu bakarrak dio erakundearen babesa apenas jaso duela eta iraindu egin dutela eta zenbait kalte jaso dituela. Delitu bortitz bategatik mina jaso duten pertsonen arretera bermatzea eta laguntza zerbitzuetarako erraztasunak ematea agintarien ardura da".



# Amalurraren fruituak gerturatzeko azoka

Ama Lur azoka Etxarri Aranatzen eginen da igandean, 10:00etatik 14:00etara. Belardi elkartearen erakusleihoa da, baina aurtengo helburuen artean transgenikoen erabilera mugatzea eta ekoizle txikiendako eraldaketa gunea sortzea da

## ETXARRI ARANATZ

Zazpigarren urtez lehen sektorea Etxarri Aranazko plazaz jabetuko da Ama Lur azokaren bitartez. Sakanako nekazariak, abeltzainak eta ekoizleak osatzen duten Belardiren ekimena da azoka, abeltzaintzako eta nekazaritzako ekoizpen eta kontsumo arduratsuko hitzordua izan nahi du.

Baina ez Belardiren ekimen bakarra. Elkartea ibarrean lehen sektorea bermatu eta zuzeneko tokiko kontsumoa bulkatzea du helburu. Hari etorkizuna hobea eman nahi dio. Horregatik, Belardiko kideak Sakanako Garapen Agentziarekin batera ekoizle txikiak euren produktuak eraldatu ahal izateko gune bat sortzeko lanean ari dira. Horrela, sortzen dutena transformatu eta euren produktuen eskaintza zabaltzeko aukera emanen liekete ekoizleei.

Baina horrekin batera, Belardiko kideek ingurumenarekin kezka dute, handik sortzen baitituzte euren produktuak. Eta euren ondorengoei lurra dagoen egoeran edo hobe utzi nahiko liekete. Abiapuntu hori izanik, "herri lurrekin zer ari garen egiten aztertu" zuten. Gogoko ez zituzten jokabideak ikusi zituzten eta, horregatik, Sakanako udaletan mozioa aurkeztu zuten, herri lurretan transgenikoen erabilera debekatzeko eskatuz.

Dagoeneko ibarreko zenbait udalek erabaki dute glifosfato belar-hiltzailea ez erabiltzea kudeatzen dituzten espazioetan (parkeak, berde-guneak, baratza publikoak, bideen mantenuan...). Aldi berean ekoizpen ekologikoaren alde egin dute. Eta progresiboki gertuko produktu ekologikoen sustapena eginen du euren esku dauden establezimenduetan (ikastetxeak, egoitzak...). Hartutako erabakiaren berri lehen sektoreari jakina-



Ama Lur azoka iragartzen duen karteletako irudia. BELARDI

razteko konpromisoa hartu dute. Eta, azkenik, onartutako adierazpena betetzen dela ziurtatzeko, hari jarraipena egiteko pertsona bat izendatu dute udal bakoitzean.

## Egitaraua

Azoka 10:00etan zabalduko da. Sakanako ekoizleak euren produktuak salgai jarriko dituzte azoka gardenean. Ibarrean ez dauden produktuak Nafarroako beste ekoizle batzuk ekarriko dituzte. Guztira 20 postu izanen dira eta haietan ogia, ardoa, marmeladak, loreak, olioak, alubiak, ukenduak, arrautzak, ahuntz gazta, pasta, behi esnekiak, ardi gazta, karakolak euskal txerriak eta eztaia opatzeko aukera izanen du azoka bisitatzen duenak. Plazan ere behi, ardi, behor eta beste abereen erakusketa izan da. Giroa gaitariak alaituko dute goizetik.

11:30etik aurrera ardi-motzailak lanean ikusteko aukera izanen da eta handik ez oso urruti gazta nola egiten den ikasteko aukera izanen da. Eguerditik aurrera euskal txerri errearen pintxoak dastatzeko aukera izanen da.

Azokarekin batera, Belardik Ama Lur jardunaldiak antolatu ditu eta hura despeditzeko elikadura burujabetzari buruzko mahai-ingurua izanen da ostegunean, 18:30ean, kultur etxean. Hiru hizlari izanen dira: Judith Garcia, Gipuzkoako EH Bilduko batzarkidea; Juanma Intxaurrandieta, Intiako gerentea, eta Imanol Ibero, Nafarroako EHNEko presidentea eta ardo ekologikoko ekoizlea. Jardunaldia atzo hasi zen Jose Ramon Olarieta adituaren transgenikoei buruzko hitzaldiarekin.



Lehenengo urteko partaide bat. ARTXIBOA

## Munduko zaporeak hamargarrenez dastatzera

Munduko Arrozak ekimena bihar bueltan izanen da plazan, 10:00etatik 14:30era

## IRURTZUN

Arroza eta makina bat elikagai mahai gainetan. Eta suak. Eltzeak eta lapikoak ezin falta. Eta esku abilak haiek guztiak erabiltzen. Jatorri askotako irurtzundarrenak. Arroz aleen moduan, guztiak berdina garela adieraziz, nork bere errezeta prestatzen. Jendaurrean. Beste kulturetako errezetak ezagutzeko, gurea partekatuzko. Mahaiaren bi aldeak, sukaldariak eta ikusle-ikasleak harremanetan jartzeko. Arroza aitzakia.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuko teknikari Bego Zetauk gaztigatu duenez, "ez da kozinatze tokia bakarrik, espazio publiko partekatuzko erabada. Egun horretan plazan parte hartu nahi duen guztiak goiza elkarrekin pasatzeko aukera izanen du. Plazara joaten denak nahi duen edo hobekien

sentitzen den moduan parte har dezake".

Irurtzungo Foru plazako esalpetik pasatzen denak 10 bat arroz dastatzeko aukera izanen du, besteak beste: Senegal (2 arroz), Maroko, Help-NA (errefuxiatuen aldeko taldea), Irurtzungo emakumeena, Atakondokoa, jubilatuen eta Pikuxarrekoa. Plazatik pasatzen direnek errezeta horiek dastatzeko aukera izanen dute. Horretaz aparte, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak sentsibilizazio gunea jarriko du. Errefuxiatuei buruzko argazki erakusketa izanen da. Aurtengo berritasuna jolas kooperatibo baten aurkezpena da. Txikiendako, gainera, puzzleak eta bestelako denbora-pasak ere izanen dira. Antolatzaileek jakinarazi digutenez, azken orduko sorpresaren bat ere izan daiteke. Kulturartekotasun Asteko ekimena da.

**Txalaparta**

**Ondo Pasa San Juanetan**

**Taberna**

**948 467 070**

**Zumalakarregi plaza**

**ALTSASU**

Ogiaren artisauak

**PORTUKO** okindegia

**ETXARRI ARANATZ: 948 460 988**

**ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153**

## Pentsiodunek kalean dagokiena eskatzen segituko dute

1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta 2011tik galdutako eros-ahalmena berreskuratzea exijitu dute

ETXARRI ARANATZ / ALTSASU

Astelehenean bi kontzentrazio egin ziren pentsio duinak aldarrikatzeko. Etxarri Aranazko azokan, Sasoiak, Nafarroako jubilatuta eta pentsiodunen elkarrekin 120 bat pertsona elkartu ziren. Altsasun, berriz, deitzaileak Pentsionistak Martxan eta Otsailak 22 plataforma izan ziren eta 50 bat pertsona elkartu zituzten.

Batzuk eta besteek Espainiako Gobernuak proposatuta % 0,25eko igoeraren kontra egin zuten. Argitu zuten, dauden 10.672.282

pentsioetatik soilik % 53,73ri eragiten die, "gainontzeko % 46,27ri ez dio ezertarako eragiten". Azaldu zuten, igoera horrek eta aurreko urteetan pentsioak bere horretan mantentzea jubilatu eta pentsiodunen eros-ahalmena berreskuratzeke ez du balio. Pentsioak urtero berritzeko Kontsumo Prezioen Indizea kontuan izatea aldarrikatu zuten. Eta, beste behin, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatu zuten.

Espaniako Gobernuaren aurrekontu zirriborroaren arabe-



Etxarri Aranatzen egindako kontzentrazioa. SASOIA

ra alarguntasun pentsioak urtean, batz bestea 450 euro igoko litzateke, gutxienekoa 250 eta 12.040 eurotik aurrerakoa 100.

Nafarroako Gobernuak heldu den urtera arte 20.000 alarguntasun pentsioak lanbide arteko

gutxieneko soldatarekin (707 euro) berdintzeko asmoa du. Jakinarazi duenez, dagoeneko 13.185 pertsonari osatu die pentsioa. Bestalde, Altsasun astelehenero Zumalakarregi plazan elkartuko dira, 12:00etan.



ARROIA BERASTEGI

## Artaldeak mendiko bidean

Udaberria aurreratzearekin batera artaldeak ibarreko larreak utzi eta mendirako bidea hartzen hasi dira. Hala egin du Lizarragako Etxeturiko Migel Berastegi artzainak aste honetan. Artaldeak pixkanaka igotzen hasiko dira Aralar, Andia eta Urbasako larreetara eta han izanen dira udazken hasierara arte.



OLAZTIKO INAUTERI TALDEA

## Zamarroak Avilaraino joanak

Olatzagutiko ihote segizioa Navalosaraino (Avila) iritsi zen larunbatean eta Mascaravila jaialdian parte hartu zuen; Avilako maskara eta dantza jaialdiaren 4. edizioan. Olaztiarrek zamarroak zer diren 2.000 pertsonaren aurrean aurkeztu zuten egindako kalejiran. Bertako bost ihoteen berri izateko aukera ere izan zuten.

## Errefuxiatuen aldeko karabanan parte hartzera deitu dute

Sakana Harrera Harana taldeko kideek bat egin dute Mugak Zabalduz Euskal Herriko karabanaekin. Karabana horrek Europako Batasunaren "migrazio politika kriminalak" salatzen ditu. Aurreko bi urteetan Greziara eta Melillara joan dira eta udan Italiara joatekoak dira.

Baina apirilaren 28tik maiatzaren 1era Euskal Herrian beste karabana bat antolatu dute, "oso garrantzitsua ikusten baitugu hemen erabiltzen diren praktika politiko eta ekonomikoak salatzea, eta horiek sortzen dituzten ondorioak pertsonetan, horietako asko gure auzokideak izan ahal direnak". Atzerritarrek sartzeko zentroak, tiro-eremua, armagintza fabrikak, armen trafikoa zabalduta eta pertsonen fluxua ixten duen portua...

Mugak zabalduz karabanan izena emateko epea astearekin batera despeditzen da. 50 euro balio du. Laguntza-bonua badago ere. Informazio guztia [www.mugakzabalduz.eus](http://www.mugakzabalduz.eus) web orrian.

## Altsasuk Dantzaleku kudeatzeko deialdia egin du

Altsasuko Udalak Dantzalekuko taberna-jatetxea eta kirol-gune-ko eta Usolarraingo mantenua eta garbiketa emateko deialdia egin du. Lizitazio aurrekontua 31.200 eurotako (BEZ kanpo) da. Urte baterako kontratua da, beste hiruz luzatu daitekeena. Interesatuak euren proposamenak hilaren 30era arte aurkeztu ditzakete. +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



BIZI SAN FERMINAK

## SAN FERMINETAKO PROGRAMA KULTURALEAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENA/AUKERA

San Ferminetan, Takonera parkeko Vistabellako gunean Bizi Nafarroa Oinezek ikuskizun programaketa zabala prestatu nahi duela eta dei egiten die Sakanako musika, antzerki, dantza talde, umorista nahiz malabarista zein animatzaile eta artista guztiei.

Nafarroa Oinez San Ferminak egitaraua osatzen LAGUNDU nahi duen oro, jar dadila harremanetan Nafarroa Oinez arduradunekin maiatzaren 2a baino lehen.

Kontaktua: 606 03 09 66 //// [koordinazioa@oinez2018.ikastola.eus](mailto:koordinazioa@oinez2018.ikastola.eus)



# Ekin gurekin, eskola publikoek egindako deia

Sakanako bederlatzi eskola publikoek euren festa ospatzeko Etxarri Aranatz aukeratu dute. Biharko egun osoko egitaraua prestatu dute. Modu asko daudela eta eskoletatik parte hartzera gonbidatu dituzte sakandarrak

## ETXARRI ARANATZ

Sakana herri eskolekin sortzen 10. festa Etxarri Aranazko San Donato eskolak antolatuta du Sortzen elkartearen laguntzaz. Azken horretako ordezkari Sergio Iribarrenek aurkezpenean nabarmendu zuenez, "Sortzenen indar nagusia eskoletako eragileak dira: gurasoak, irakasleak eta ikasleak". Sortzenen "amesten duten hezkuntza sistemaren oinarria eskola eta herria direla" azaldu zuen: "herriaren beharrei erantzuneko dien eskola eta, aldi berean, herria eraldatzen, jendarte justuago bat lortzen, lagunduko duen eskola".

Iribarrenek azaldu zuenez, biharko festaren leloa, *Ekin gurekin*, "elkarlanerako dei bat da, elkartu eta eragin, gurekin batera, zu ere gu izateko, eta gu, zurekin, gu-ago izaten jarraitzeko."

## Antolatzaileak

Eskolako zuzendari Ana Mazkiananek gogoratu zuenez, festa duela 10 urte sortu zen eta haren helburua "herriak duen eskola euskaldun eta publikoa ezagutaraztea eta maitatzea zen. Gaur hartan herri eskola hau gutxietsia zegoen eta argitasuna bilatu nahian, beste gauza batzuen artean, festa hau antolatuta



Montse Moyano, Ana Mazkianan, Ederne Imaz, Sergio Iribarren eta Joana Senar.

genuen". Ordutik egoera aldatu egin dela esan du eta "egun, San Donato euskalduna, publikoa, inklusiboa, berritzailea eta bere ikasleen ongizatearen konpromisoa duen herri eskola bezala ezagutzen da".

Zuzendariak azaldu zuenez, eskola komunitate guztiaren "elkarlanarekin kemen, ahalegin eta ilusioz jai ederra prestatu dugu". Eskoletatik Sakanara honako mezua zabaldu nahi dute: "ekin gurekin euskaraz eta euskararekin, ekin gurekin etenik gabeko hobekuntzan eta kalita-

tearekin, ekin gurekin berdintasunean, inklusioan eta ekin elkarlanean gurekin".

Festa Batzordeko kide Ederne Imazek parte hartzera deitu zuen: festan parte hartuz, postreak aurkeztuz edo haien zozketarako txartelak erosiz. Ibarreko enpresek eta dendek emandako laguntza eskertu zuten, horrela tonbola sortu baitute eta txartela erosten duen bakoitzak sari bana izanen duela iragarri zuten. Ikasleen letrarekin eta Juanpa Agirrerren musikarekin kanta sortu dute flashmoberako.

## Etxarri Aranazko Udalak militarren ariketak salatu ditu

Udal Espainiako armadari eskatu dio "gure eremutik kanpo atera ditzala unitate eta konpainia militar guztiak"

## ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi duenez, "egun hauetan ariketa militarrek egiten ari dira Sakanan eta herri erdigunetik unitate batzuk pasa dira, Aralar aldera". Bestetik, asteartea goizean Lizarragako portutik Beriainera militarrek "martxa taktikoa" egingen duela jakin dute udalean eta hartan 80 militarrez osatutako konpainia batek parte hartuko duela. "Jakina da mugimendu militar horiek gure herritarren artean ezinezona eta kezka sortzen du-

tela. Etxarriarrok bizikidetzaz sustatu nahi dugu, eta agerraldi militar eta erakustaldi armatuak ez du helburu horietan batera laguntzen".

Udaletik adierazi dutenez, "gure herrietan ez dugu martxa, manobra edo gerrarako probak egiterik nahi, gizarte baketsu eta desmilitarizatu eredu baten alde lanean ari garelako." Militarren ariketak "inolako segurtasun-protokolorik nahiz segurtasun-neurririk gabekoak izatea" salatu du. Armadari "gure eremutik kanpo unitateak ateratzea" eskatu dio.




**LORATEGI EGUNA**

**apirilak 21 larunbata**

**Zatoz gu ezagutzera!**

**OPARI SEGURUA**  
Izango duzu



*Lorezaintza eta Basogintza makinarian adituak*

**Tfnoa: 948 461 734**  
Pol. Ind. Zumurdiñeta, 6  
31820 ETXARRI-ARANATZ (Na)

**Tfnoa: 948 500 392**  
Pol. Ind. Akaborro, 19  
31820 IRURTZUN (Na)

## Egitaraua

- **11:00-13:30** Eskoletako tailerrak plazan, puzgarriak, eta postreen zozketarako tiket salmenta. Basabereko animaliak egongo dira ere.
- **12:00** Erraldoiak eta gaiteroak. Irurtzungo Iskidi ihoaldun txikiak.
- **13:00** Ekitaldia eta postreen zozketa.
- **13:30** Flashmoba, oholztan.

- **14:00** Haurren bazkaria, frontoian.
- **15:00** Helduen bazkaria, frontoian.
- **14:30-16:30** Puzgarriak eta rokodromoa herriko frontoian.
- **16:00-17:00** Poniak, oinezkoen alderdian.
- **17:30** Eskoletatik Oholtzara ikuskizuna, Sakanako eskoletako taldeen parte-hartzearekin.



- **18:00** Txokolate-jana.
- **18:30** Xaiborrek dantzaldia.
- **20:00** Txuma dj kioskoan.
- **22:00** Zezensuzkoa eta festa akabera.

# Txikiak handi ekimenak Mank-en bultzada du

Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroa Oinez fundazioak hitzarmena sinatu dute Txikiak Handi ekimena bultzatzeko. Eremu urriko hizkuntzen handitasuna sustatzen duen proiektuak Nafarroa Oinez bezperan jardunaldia antolatuko du

SAKAN

Sakanako Mankomunitateko presidente David Orozek eta Nafarroa Oinez fundazioko idazkari Josu Reparazek hizkuntza gutxituak sustatzea helburu duen Txikiak Handi ekimena bultzatzeko hitzarmena sinatu dute, berriki, ibarreko erakundearen Lakuntzako egoitzan.

Txikiak Handi munduko hizkuntza gutxituen handitasuna aldarrikatzeko eta haien arteko zubiak eraikitze sortutako Nafarroa Oinez proiektu iraunkorra da. Nafarroa Oinez festa bidelagun, euskararen eta euskal kulturaren aldarrikapenetik hizkuntza anitzen mundurantz zabaltzeko eta hizkuntza guztiak errespetatuak izateko eskubidea lortu nahi da.

## Lastailaren 20an Txikiak Handi jardunaldia

Aurtengo edizioan Altsasuko Iñigo Aritzaga ikastolari dagokio antolaketaren ardura eta aipatzekoa da datorren lastailaren 20an, Nafarroa Oinezaren bezperan, ospatuko dela Txikiak Handi jardunaldia. Aipatu jardunaldian Euskal Herriko eta bai nazioarteko hainbat adituk parte hartuko dute gaiaren inguruan eginen diren hitzaldietan. Besteak beste, Johan Haggman



David Oroz, Mank-eko presidentea, eta Josu Reparaz, Oinez fundaziokoak. UTZITAKOIA

izanen da, hizkuntza gutxituen inguruan Europako Batzordean 10 urtez lanean ibilia, Hizkuntza gutxituen batzordean eta Eleaniztasuna batzordean zehazki. Gaur egun Finlandia eta Suedian hizkuntza gutxituen inguruan hainbat fundaziotan lanean ari da Haggman. Harekin batera Idurre Eskisabel kazetaria, antropologoa eta EHUKo irakaslea eta Juan Kruz Lakasta, Euskal Herri Irratiko kazetaria izanen dira.

Horrezaz aparte, Yucatango "Radio Yúuyum" eta Irlandako

"Raidió Na Life" ereduak eza-gutzeko aukera izango da jardunaldietan.

*Txikiak handi* 2009ko Nafarroa Oinezeko leloa izan zen, Andra Mari ikastolak antolatu zuena. Orduetik hizkuntza gutxituen arteko sarea ehuntzen joan dira urtetik urtera. Eta ikastola batetik bestera ibili ondoren, bederatzirteren ondoren proiektua bere sorlekura, Sakanara bueltatu da aurtengoa. Txiki askok gauza handiak egin dezaketela aldarrikatuko dute berriz ere ekimenaren bidez.



Sakandarren egunean omendu zituzten Hartza ahizpak. ARTXIBOA

## Hartza ahizpendako Karlos III.a Prestuaren Gurutzea

Nafarroako Gobernuak aitortza hori ematea erabaki du, herrialdearen "garapenaren" alde egindako lanagatik

ALTSASU

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran erabaki du Karlos III.a Prestuaren Gurutzea bederatzirterari eta erakunderi ematea. Aitortza horrekin "Foru Erkidegoaren garapenaren, babesaren, eta itzalaren alde ekarpen nabarmena" egin dutenen lana aitortu nahi du gobernuak. Aitortza jasoko dutenen artean daude Hartza ahizpa altsasuarrak.

### Biografia

Julia, Juana Mari eta Manoli Hartza Sueskun ahizpak Altsasun jaio ziren. Gaztetan artzain izan ziren Urbanan. Aita gazte hil zitzaizen. "Ekintzaileak ziren eta euren kabuz Iruñean izan den jatetxe ospetsuenetako bat martxan jarri zuten: Hartza".

Jatetxeak Iruñeko Labrit kaleko lehen pisu batean zabaldu zituzten ateak 1971n. Michelin izar bat lortu zuten estatuko aurreneko emakumeak izan ziren, 1982an. Bi urte geroago atentatua izan zuten: eskuin muturreko pistolari batek bertatik bertara tiro egin zion Manoliri. Gertakari horren ondoren, 1985ean, kale berean lorategia zuten etxe batera lekualdatu zuten jatetxea eta han aritu ziren lanean 2009an ateak itxi eta hiru ahizpak jubilatu ziren arte.

Hartza jatetxea tradizio- eta produktu-sukaldaritzaren Nafarroako erreferenteetako bat izan zen. Michelin izarrarekin edo gabe, jatetxea Iruñeko ezagunenetako bat izan zen, kriti-

kari eta publikoaren aitortza izan zuen. Tradizio-sukaldaritzaren aldeko hautua egin arren, hiru ahizpek platerak prestatzerakoan ez zioten irudimenari eta berritasunari uko egin, izpiritu berritzaileak etengabe ikastera bulkatu baitzituen. Haien ziren urtero Bidasoako aurreneko izokina erosten zutenak. Julia, Juana Mari eta Manoli ahizpei Nafarroako ohiko sukaldaritzaren herrialdean eta kanpoan zabaltzeko egindako lana aitortu diete.

Aurretik ere bestelako aitortzak jaso dituzte. 2011ko Sakandarren Egunean omenduak izan ziren. Azaroan, berriz, Nafarroako gastronomiaren damak izendapena jaso zuten.

Joan den urtean aitortza hori Uharte Arakilgo Aralar Mendi elkarteak jaso zuen, 50 urte bete zituzten Artzain Egunean antolaketagatik.

### Karlos III.aren Gurutzea

Nafarroako Karlos III. Prestuaren Gurutzea kondekorazioa 1997. urtea sortu zuen Foru Gobernuak, Nafarroaren aurrerapenean eta Komunitatea kanpoan ezagutzera ematen nabarmen lagundu duten pertsonak eta erakundeak saritzeko, dagozkien jardueren esparru jakinetik. Foru dekretu bidez ematen da.

Kondekorazioa gurutze esmaltatu bat da, eta Nafarroako Artzain Orokorrean gordetzen den ezkozko errege-zigiluan agertzen den Karlos III. eseriaren irudia berregiten da.

## Arakilen hiru kontratazio

Arakilgo Udalak jakinarazi duenez, hiru kontratazio eginen ditu. Alde batetik, zerbitzu anitzetako lantaldean aritzeko bi peoi eta, bestetik, gizarte eta kultur dinamizatzaile bat kontratatuko ditu udalak. Guztiak ere 6 hilabetetarako kontratua izanen dute. Eskaerak aurkezteko epea gaur bukatzen da. Oinarriak [www.arakil.net](http://www.arakil.net) web orrian daude.



ARTXIBOA

50  
—  
%80  
—  
10

## Guaixe fundazioaren bazkidetzaren %80a itzuliko zaizu

Urtean 50 euro ordaindu eta 40 euro  
berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean.  
2017ko ziurtagiria eskatu:  
admin@guaixe.eus edo 948 564 275,  
Foru plaza 23, 1. solairua.



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 20

**ALTSASU** Booktubeak egiteko kedada. 12 eta 16 urte artekoendako Euskara Zerbitzuak antolatuta. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**BAKAIKU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 19:00etan, erdiko iturrian.

**ALTSASU** EPPKren barne eztabaida eta etorkizuneko ildoak. Hitzaldian, gainera, preso eta iheslarien egungo egoeraz eta Altsasuko lan dinamikaz ariko dira Txema Matanzas preso ohia eta EPPKren abokatu taldeko kide bat. 19:00etan, zubi ondo elkartean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

**OLATZAGUTIA** Purga. Sofi Oksanen liburuaz literatur hizketaldia. 21:00etan, liburutegian.

**ALTSASU** Lady Bird filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 21

**ALTSASU** Altsasu eta Azeptia

arteko 130 km-ko joan-etorria egingen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepide atalekoak. 08:00etan, San Juan plazatik.

**HIRIBERRI ARAKIL** Lehen sorospenak ikastaroa. 09:30etik 13:30era, kontzeju etxean.

**IRURTZUN** Munduko Arrozak. 10:00etatik 14:30era, plazan.

**LAKUNTZA** Gesaltza Añanara txangoa. Goizean, plazatik.

**ALTSASU** Estereotipoak alde batera utzita; bizikidetzaren pluralaren alde ikastaroa. 16-30 urtekoendako. Izena eman 948 564 785 edo 608 617 778. 10:00etatik 14:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

**ETXARRI ARANATZ** Sakana herri eskolekin Sortzen festa. 11:00etatik aurrera, plazan.

**ARBIZU** Elkartasun eguna. 11:30etik aurrera, plazan.

**ALTSASU** Baga, biga, higa kontzertua. Burundar Txistulariak eta Etxarri Aranazko abesbatza. 19:30ean, lortia kultur gunean.

**OLATZAGUTIA** Ez dok hiru. Tartean antzerki taldeak euskal musikaren benetako istorioa eskainiko du. 20:00etan, kultur etxean.

## IGANDEA 22

**ALTSASU** Castro Urdiales, 35 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirrindulari klubeko

mendi-bizikleta taldeak. 07:00an, abiatuko dira euren egoitzatik.

**ALTSASU** Lizarrusti, Lareo, Sarastarri. Ibilbide hori egingen dute Altsasuko Mendigoizaleak taldekoak. 08:00etan, egoitzan.

**OLATZAGUTIA** Olatzagutia-Arantzazu mendi irteera. Sutegei taldeak antolatuta. 07:00etan, plazatik.

**ETXARRI ARANATZ** Ama Lur azoka. Belardi Sakanako ekozileen elkarteak antolatuta. 10:00etatik 14:30era.

**LAKUNTZA** Elai Alai dantza taldearen eguna. Eguerdian, plazan.

**ALTSASU** Bonie bears, el gran secreto filmaren emanaldia. 17:00etan, lortia kultur gunean.

**OLATZAGUTIA** Burbuja. Xaboi-burbuilekin 7 Burbujasen ikuskizuna. 17:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Lady Bird filmaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 23

**IRURTZUN** Liburuaren eguna. 09:00etatik aurrera, plazan.

**ALTSASU** Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. Otsailak 22 plataforma eta Pentsionistak Martxan. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

**ALTSASU** Potroak odoletan liburuaren aurkezpena. Alfredo Alvaro Igoa idazleak aurkeztuko du. 19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Altsasukoak aske batzarra, epaiketaren berri emateko. 20:00etan, udaletxe parean.

## ASTEARTEA 24

**UHARTE ARAKIL** Erreanimazioa eta lehen sorospenak tailerra. Aurretik Gizarte Zerbitzuetan izena eman. 17:00etatik 19:00etara, udaletxean.

**OLATZAGUTIA** Unibertsoa eta liburuak. 5 urtetik gorako haurrendako ipuin kontaketa. Eguzki Sistema margotu eta zintzilikatuko dute. 17:00etan, liburutegian.

**ALTSASU** La banda de Arruti liburuaren aurkezpena. Jon Arretxe idazleak aurkeztuko du. 19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Altsasukoak aske batzarra, epaiketaren berri emateko. 20:00etan, udaletxe parean.

## ASTEAZKENA 25

**ALTSASU** Altsasukoak aske batzarra, epaiketaren berri emateko. 20:00etan, udaletxe parean.

## OSTEGUNA 26

**LAKUNTZA** Bizitarako kompetenziak hitzaldia. 17:00etan, Gure Nahia jubilatuta elkartean.

**UHARTE ARAKIL** Erreanimazioa eta lehen sorospenak tailerra. Aurretik Gizarte Zerbitzuetan izena eman. 17:00etatik 19:00etara, udaletxean.

**ETXARRI ARANATZ** Flobin jolas eta ipuin. Kontakizun hori egingen du Xabier Flamarique ipuin kontalariak. 3 urtetik gorako haurrendako. 17:30ean, liburutegian.

**ALTSASU** Munduko ipuinak. Manolita Thundersen haurrendako tailerra, Liburuaren eguneko egitarauaren barruan. 18:00etan, lortia kultur gunean.

**LAKUNTZA** Gitarra kontzertua. Lakuntzako, Etxarri Aranazko eta Altsasuko musika eskolako ikasleak. 18:30ean, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ** Elikadura burujabetzari buruzko mahai-ingurua. Hizlariak: Judith Garcia, Gipuzkoako EH Bilduko batzarkidea; Juanma Intxaurrandieta, Intiako gerentea, eta Imanol Ibero, Nafarroako EHNEko presidentea eta ardo ekologikoko ekozilea. 18:30ean, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ** Jar zaitetz martxan: zure egunerokoan autonomia berreskuratzeko. Josefina Arregi klinikaren hitzaldia. 18:30ean, Gure Ametsa jubilatuen elkartean.

**ALTSASU** Gorrirojo filmaren emanaldia. 19:00ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Altsasukoak aske batzarra, epaiketaren berri emateko. 20:00etan, udaletxe parean.





### LAKUNTZA Elai Alai dantza taldearen argazki erakusketa.

Gaurtik igandera arte, kultur etxean.



### IRURTZUN Greziara karabana. Mugak zabalduz (2016). Txefo Mendezen argazkiak

Maiatzaren 4ra arte Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan ikusgai.



### ALTSASU Parlamentu baten irudiak erakusketa, Nafarroako Parlamentuak antolatuta.

Maiatzaren 6ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

## JAIOTZAK

- **Ugaitz Zabala Beraza**, martxoaren 26an Irañetan.
- **Luar Ustarroz Peña**, martxoaren 28an Uharteko Arakilen.
- **Naima Jimenez Carbonell**, martxoaren 28an Olaztin.
- **Urko Marquez Anso**, apirilaren 8an Altsasun.
- **Alain Jaka Armendariz**, apirilaren 11n Irañetan.

## EZKONTZAK

- **Aritz Agirre Aldatz eta Nadezda Kurilets**, apirilaren 17an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKI SAILKATUAK

**OHARRAK**  
Odol-emaileak. Lakuntza: apirilaren 23an, 17:00-20:30

**Altsasuko irakurle taldea.** Pilar Labaien hizkuntza eta literatura irakasleak zuzendutako literatura hizketaaldia izanen da apirilaren. Margaret Atwooden *El cuento de la criada*. liburuaz hizketatuko dira.

**Sakana Trenaren alde.** Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

**Otdadiko ermitaren alde.** Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

**Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresari Elkarteak langabezi eta lan bila dabilzatenendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**Josefina Arregui Klinikako bazkidea izan nahi baduzu**, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoezara hots egin dezatela.

**3MBk kontu korrantea zabaldu du** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

**Altsasuko Udaltzaingoa**  
**Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk:

8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia azterteza, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

**GoEner. Iruñeko helbide berria:** Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hilero 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

[www.iragarkiaburak.es](http://www.iragarkiaburak.es)

### Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

### Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa. 948 564 275

## URTEURRENA



## Maribel Lopez Iturbe

I. urteurrena

2017ko apirilaren 5ean

Beti gure bihotzetan zaude

Jabi eta Kexus


## ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa bame dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.


## EGURALDIA ASTEBURUAN

### Ostirala, 19




Ostiralean giro egonkor eta atsegina izango dugu. Zerua nahiko garbi agertuko da baina bero hodei batzuk sortu daitezke arratsaldean.

### Igandea, 21




Hego haizeak tenperatura igoko du gurean, baina egunaren azken orduetan, bero hodeien ondorioz ekaizak egon daitezke.

### Larunbata, 20



Ostiraleko eguraldi egonkorrekin jarraituko dugu. Noizbehinka hodeiren bat agertu daiteke zeruan, baina ez du garrantziarik izango.

### Astelehena, 22



Goizalde beroa izango dugu, baina egunak aurrera egin ahala, iparraldeko haizea sartuko da, eguna zertxobait freskatuz.

tanatorioak  
**IRACHE**

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Joseba Ezkurdiak eta Erik Jakak batak bestearendako hitz ederrak izan zituzten.

## Ezkurdia: "Jaka bere jokotik atera beharra dut"

**PILOTA** Gaur, ostiralean, Altsasun, Joseba Ezkurdiak bi partida irabaztetik datorren Erik Jaka izango du aurkari Buruz Buruko final zortzirenetan. Aurretik, promesen buruz burukoan Joanes Bakaikoa Darioren kontra ariko da

Joseba Ezkurdia Buruz Buruko final zortzirenetan sartuko da lehian gaur, ostiralean, Altsasun (22:00, ETB1). Final hamaseirenetan Laso 13 tantotan uztezik datorren Erik Jaka izango du aurkari.

### Bakaikoa vs Dario, hasteko

Altsasuko jaialdia Promozio mailako Buruz Buruko txapelketako partida batek zabalduko du. Hain zuzen ere, Joanes Bakaikoa etxarriarra Promozio final laurdenetan sartuko da lehian. Dario izango du aurkari.

### Sentsazio ez oso onak

Asteazkenean materiala aukeratu zuten Joseba Ezkurdiak eta Erik Jakak. Arbizuarrak Juan Martinez de Irujoren laguntza izan zuen. Ezkurdiak adierazi zuenez, Binakako txapela "ahaztua" dago. "Orain Buruz Burukoan gaude burubelarri. Partida zaila daukat, Erik Jaka oso aurkari arriskutsua da, gauzak ongi egiten ditu

eta momentu onean dago. Ea gauzak ongi egiten ditudan eta partida irabazteko aukera dudan" aipatu zigun arbizuarrak. Ez dituela oso sentsazio onak gaineratu zuen. "Entrenamendu lasai bat egin nuen eta beste bi gogorragoak, Altsasun. Egia esan, ez dira sentsazio onak izan, baina egunetik egunera hobetzen joan dira eta horrek konfiantza eman dit. Ea poliki poliki ostiralerako tope gauden".

Erik Jaka "oso ongi" ikusten du. "Lasoren kontra partida serioa egin zuen, arriskutsua da, sake eta errematearekin mina egiten du, ezker gantxoarekin eta bolearekin tantoa errez bukatzen du... Saiatuko da ni aurrealde horretan sartzen eta nik, bai ala bai, bere jokotik ateratzen saiatu beharra dut, ea lortzen dudan" azaldu zuen. Arbizuarrak onartu zuenez, presioa beti egoten da, baina lasai aterako da Burundako kantxara. "Aurten ez dut denbora nahikoa izan buruz buruko prestatzeko, eta

irabazi nahi badut asko sufritu beharko dut. Nire jokoa izango da sakea aprobetxatzea, eta pilota dudanean Erik ahalik eta apartena izatea" aitortu zigun.

### Jaka: "Faboritua Joseba da"

Erik Jakak onartu zuen ongi hasi duela Buruz Buruko, bi partida ona egin dituela, baina ostiralekoa "beste kontu bat" izango dela. "Josebak urte asko daramatza banakakoan jolasten, binakako txapelketa irabaztetik dator eta oso momentu onean. Badakit partida oso zaila dudala baina nik nire gauzak egiten baditut aukera bat edo beste izan dezaket" aipatu zuen. Hala ere, argi eta garbi du Ezkurdia dela faboritua. "Faboritua bera

**ZABALETA BURUZ BURUKOTIK KANPO DAGO, ALBISUREN KONTRA 22 ETA 8 GALDU ETA GERO**

da, berak ere badaki. Buruz buruko lehenengo mailako lehenengo txapelketa dut hau. Ongi iritsi naiz baina bera nola dagoen ikustea besterik ez dago" nabarmendu zuen. Jakak onartu zuen Buruz Buruko prestatzeko arbizuarrak baino denbora gehiago izan duela, "baina nik aldutuko nituzke berak negu guztian jokatzen dituen partidak, nireekin alderatuta. Bera lehen mailako pilotaria da; ni ez. Urtean zehar lehen mailako partidak oso kontatuta jokatzen ditut. Ni nire mailan nago eta bera berean. Sorpresa litzateke nik irabaztea, baina tarteka sorpresak izaten dira eta hori bilatu beharko dut" aipatu zuen.

### Zabaleta txapelketatik kanpo

Buruz Buruko final zortzirenetako beste partidetan, Olaizola II.ak aurreko ostiralean Zabaleta 8 tantotan utzi zuen Albisu izango du aurkari bihar, larunbatean Labriten jokatuko den partidaren (ETB1). Albisuren jokoaren aurrean Zabaletak apenas egin ahal izan zuen ezer eta distantzia aldaketarekin etxarrendarra ez zen batere eroso ibili.

Bestalde, Victor irabaztetik datorren Retegi Bik Altuna III. aren kontra jokatuko du igandean Eibarren eta astelehenean, aldiz, Artolak Arteaga 6 tantotan uzteagatik datorren Elezkano II.aren kontra ariko da Tolosako Beotibarren.

## Olaztiko txapelketa

Maiatzean hasiko da Olaztiko San Migel Elkarteko Eskuz Binakako Pilota Txapelketa. Hiru mailatan jokatuko da: 1. maila, 2. maila eta 3. maila. Izena ematea zabalik dago apirilaren 30a baino lehen, ondoko telefonoetara hots eginez: Juan (617 327 893) edo Bitoriano (617 327 894). Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu.

Txapelketa hau federatu gabeko pilotari afizionatuei begira antolatu dute. Finalak Olaztiko Santa Ana festetan jokatuko dira.

## PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Beriain - Lagun Artea	2-2
Infanzones - Etxarri Aranatz	0-2

SAILKAPENA	
1. Infanzones	51
12. Lagun Artea	28
13. Etxarri Aranatz	26

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
17:00	Lagun Artea - Infanzones <i>Lakuntza</i>
17:00	Etxarri - Arrotxapea <i>Etxarri</i>

Lagun Artea aurreratzen zen Beriainen, Enekori esker, baina berdintzea eta bigarrena sartzea lortu zuen Beriainek. Zorionez, Anderrek bina berdindu zuen. Obanosen, garaipen garrantzitsua lortu zuen Etxarri liderraren kontra. Bi golak Infanzonesek sartu zituen, ate propioan.

## ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Altsasu - Lezkairu	0-2

2. FASEKO SAILKAPENA	
1. Iltaroa Huarte B	26
7. Altsasu	13

IGOERA FASEA. PARTIDUA	
IGANDEAN	
16:00	Huarte Iruñea - Altsasu <i>Huarte</i>

Altsasukoen akatsak aprobetxatu zituen Lezkairuk partida irabazteko. Jokalari bat gutxiagorekin aritu zen Altsasu.

## EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Altsasu - Universidad de Navarra	2-1

SAILKAPENA	
1. Berriozar	79
13. Altsasu	24

IGANDEAN	
12:00	Lagunak - Altsasu <i>Barañain</i>

Igandean partida garrantzitsua dute Altsasuko neskek, sailkapenean bigarrena den Lagunak taldearen kontra.

## SAKANAKO TOPAKETAK

BENJAMINEN PARTIDUAK	
IGANDEAN, ZIORDIAN	
10:00	Sutegi - Altsasu 1
11:00	Etxarri Aranatz - Altsasu 2
12:00	Betelu - Altsasu 3
13:00	Aralar Mendi - Lagun Artea

### Benjaminen txanda

Benjaminen mailako Sakanako Futbol Topaketen 9. jardunaldia jokatuko da igandean Ziordian. Kimuak aurreko asteburuan aritu ziren Etxarri eta apirilaren 29an dute hurrena, Ziordian.





Hiruki Triatloi taldean dabilen Ihabarko Mikel Astiz Erro probako lehen nafarra izan zen. UTZITAKOIA

# Astiz, Gomez eta Bergara Nafarroako txapeldunak

**DUATLOIA** Mikel Astiz Nafarroako Duatloi txapelduna da, igandean Bianan jokatuako proban lehen nafarra izan eta gero. Francisco Javier Gomez beteranoren 2 mailako txapelduna dugu eta Peio Bergara beteranoren 3 mailakoa

Igandean V. Bianako Printzerria Duatloia jokatu zen, aldi berean Nafarroako Duatloi Txapelketa zena. 157 duatletak hartu zuten parte eta horietatik 138k lortu zuten proba bukatzea. Azkarrena Laboratorio SYS taldeko Gonzalo Fuentes Isasi izan zen (2:00:22), eta emakumezkoetan Yepa taldeko Helene Alberdi (2:22:23). Lehen sakandarra Hiruki Valle de Egues taldeko Mikel Astiz izan zen. helmugan zazpigarrena (2:07:27), lehen nafarra. Horrela, Nafarroako txapelduna dugu Mikel Astiz, senior mailan. Sakana Triatloi Taldeko Francisco Javier "Pitxi" Gomez 55.a sartu zen eta beteranoren 2 mailako txapelduna izan zen,

eta bere taldekide Peio Bergara 122.a sailkatu zen, beteranoren 3 mailako txapelduna. Talde onena Mikel Astizen Hiruki Valle de Egues Triatlon izan zen eta Sakana Triatloi Taldea 5.a sailkatu zen.

## Gazteenak bikain V. Basaburua Duatloian

Duatleta gazteenek V. Basaburua Duatloian parte hartu zuten larunbatean, eta oso ongi ibili ziren Sakana Triatloi Taldeko kideak. Horrela, aurrebenjaminetan Oihan Andueza Etxaiz altsasuarrak irabazi zuen eta benjaminen proba Mikel Arriabalaga Garziandia arbizuarrendako izan zen. Eta junio-

rren gizonezkoan Fermin Azkargorta laugarrena sailkatu zen.

## Sakandarrak Bianan

### V. Bianako Printzerria

1. Gonzalo Fuentes	2:00:22
7. Mikel Astiz (Hiruki):	2:07:27
36. Pitxi Gomez (Sak.):	2:16:56
42. Gorka Acebes:	2:18:20
43. Iñaki Alvaro (Sak.):	2:18:20
55. J. C. Gomez (Sak.):	2:22:21
56. J.L. Maiza (Sak.):	2:22:26
84. J.I. Iturrioz (Sak.):	2:32:13
122. Peio Bergara (Sak.):	2:55:10

## SOKATIRA Nafarroako Txapelketako 2. saioa bihar Lesakan

Bihar jokatu da Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketako 2. jardunaldia, 17:00etan, Lesakan. Lehen jardunaldian, kadeteen 280 kilotan Basaburua izan zen talderik onena (5 puntu), Iñigo Aritza (4 puntu) eta Andra Mari (3 puntu) taldeen aurretik. Berriozar laugarrena sailkatu zen (2 puntu) eta Anar bosgarrena (puntu bat).

## ATLETISMOA Mercero Espainiako 10 km-ko txapelduna

Igandean Espainiako 10 kilometroko errepideko txapelketa jokatu zen Iurretan. Eguraldia lagun, Beste Iruña taldeko Joxemari Mercero unanurrak sasoi bikainean jarraitzen duela erakutsi zuen eta 75 urtetik gorako kategoriako proba irabazi zuen (54:11) apirillean 79 urte beteko dituen unanurrak. Espainiako txapelduna dugu.



Joxemari Mercero.



Eguraldi bikaina dute aurretik 121 bikote parte-hartzaileek.

## Altsasuko Bizi Mendi Duatloian 121 bikotek hartuko dute parte

**MENDI DUATLOIA** Nafarroa Oinezek antolatuta, bihar, 10:00etan, Altsasun. Ondoren, bazkaria izanen da

Bihar, apirilaren 21ean, larunbatean, goizeko 10:00etan ekingo zaio Nafarroa Oinezek antolatutako Bizi Mendi Duatloiarri, Altsasuko Foru plazatik. Jakinaenez, aurten Altsasuko Iñigo Aritza ikastolak antolatuko du Nafarroa Oineza eta festa erraldoi honi lotuta ikasturte osoan ekitaldi eta ekimen ezberdinak ari dira aurrera eramaten, aipatutako Bizi Mendi Duatloia tartean.

### 121 bikote ariko dira

Bizi Mendi Duatloia berezia izango da. Izan ere partaideek bikoteka hartu beharko dute parte. 242 pertsonak eman dute izena proban aritzeko, hau da, 121 bikotek.

### Ibilbidea

Bikote bakoitzeko lehen parte-hartzaileak 23 km egingen ditu mendiri bizikletan, Altsasuko, Urdiaingo eta Iturmendiko inguruko paraje zoragarrietan barna. Altsasuko Foru plazatik aterata, San Pedrotik Urdiaingo igerilekuetaraino joko dute, eta Mauriako bidea hartuta, ibilbide ederra egingen dute Iturmendiko Pilare ermitara iritsi arte. Handik Urdiaingo San Juan ermitara joko dute eta Urdiaingo baserrietatik Altsasura, azkenean ikastolatik barna buelta eman eta gero, Altsasuko Foru Plazara heltzeko. Bertan txirrindulariak bere bikoteari erreleboa pasako dio, eskua emanez, eta honek azkeneko 7 km-ak korrika egingo ditu. Ibilbide polita

da, tartean Basoitxi, San Pedroko bidea eta beste zeharkatuko dituen. Proba Foru Plazan despidituko da.

Antolakuntzak taldekako sailkapena egingen du, gizonezkoen taldeena, emakumezkoen taldeena eta talde mistoena.

### Ondoren bazkari herrikoia Iñigo Aritza ikastolan

Eguraldi bikaina iragarri dute biharko eta Altsasura gerturatzea aukera polita da, Bizi Mendi Duatloian parte hartuko duten 121 bikoak zuzenean lanean ikusteko. Herri guneaz gain, proba gauzatzen den edozein parajetan jarraitu daiteke duatloia.

Ekimen polita izango da, txirrindulari, korrikalari eta ikusle asko erakarriko dituena. Horrela, kirol festa ederra are gehiago borobiltzea erabaki du antolakuntzak eta Bizi Mendi Duatloia bukatuta herri bazkari herrikoia antolatu dute Iñigo Aritza ikastolako frontoian. Prezio herrikoian, 8 euroren truke, bazkaltzeko aukera izango dute ez soilik kirolariek, baizik eta nahi duen orok. Ohiko menuaz eta haurrendako menuaz gain, menu begetarianoa ere izanen da. Bazkaria girotzeko musika doinuak ez dira faltako eta bazkalostean opariak zozketatuko dira.

### www.nafarroaoinez.eus

Bizi Mendi Duatloian inguruko informazio guztia, ibilbideetako mapak barne.



Sakanako Herri Kirol Egunean parte hartu zuten kirolariek talde argazkia atera zuten hasieran.

# Sakanako herri kirol festa bikaina Lakuntzan

**HERRI KIROLAK** Sakanako aizkolariek, herri kirolariek eta harri-jasotzaileek parte hartu zuten Mankomunitateak antolatutako Sakanako Herri Kirol Egunean. Sakanako aizkora eta harri-jasotze eskoletan egiten den lana ikusi ahal izan zen

Eguraldia lagun zutela Lakuntzako plazan aritu ziren, igandean, Sakanako Herri Kirol Egunean parte hartu zuten ibarreko herri kirolariek. Sakanako Mankomunitateak antolatu zuen eguna, Lakuntzako Udalararen, Nafarroako Gobernuaren eta Sakanako herri kirolarien laguntzarekin. Orain arte abenduan antolatzen zen festa baina aurten udaberrira aurreratzea erabaki dute, festa frontoietatik plazara ateratzeko. Primeran atera zen, eguraldiak lagundu

zuelako eta edozein ekitaldik plazan frontoian baino jarraipen gehiago duelako.

Ekitaldian, Sakanako aizkolaria eta herri kirolariek gain, Sakanako Aizkora eta Harri-jasotze eskoletako ikasleak lanean ikusteko aukera izan zen. Aizkora eskolako arduradunak, Juanito eta Migel Angel Erdozia etxarriarrak, han zebiltzan euren pupiloak gidatzen. Berdin harri-jasotze eskolako irakasle Mikel Lasarte harri-jasotzaile eta motozerra-moztailea.

Lehenik eta behin, Andra Mari eta Iñigo Aritzako ikastoletako herri kirolariek herri kirol konbinatua egin zuten, koxkolak, txingak eta trontza erabiliz. Sakanako harri-jasotze eskolako ikasleak saioa izan zen ondoren, eta erdoziatarrak atera ziren plazara. Hiru belaunaldiak, aitona, Juanito Erdozia; semea, Juanjo Erdozia, eta iloba, Jon Erdozia, elkarrekin aritu ziren lanean. Txalo zaparrada ederra jaso zuten. Segidan sokatiran lehiatu ziren Andra Mari eta

Iñigo Aritzakoak eta, ondoren, aizkolarien txanda iritsi zen. Lehenik eta behin Sakanako aizkora eskolako ikasle txikienek erakustaldia egin zuten; ondoren, harri-jasotzaileak ibili ziren lanean eta, segidan, aizkora eskolako nagusiagoak. Eta, azkenik aizkolaria helduen erakustaldia izan zen. Han ibili ziren Jaime eta Iker Gorriti, Goizeder Beltza eta Eloy Corchero, Juanjo Erdozia eta Iban Resano, eta Arkaitz Jauregi eta Eneko Pagola. Beltza eta Corchero gailendu ziren. Bukatzeko, Mikel Lasartek motozerrarekin arrano baten irudia egin zuen.

Festa borobiltzeko herri kirolariak Lakuntzako Pertza elkarrean bildu ziren bazkaltzera, jai giro ederrean.

## Partaideak

Lakuntzako jaialdian aritu zirenak: konbinatukoak eta sokatarakoak: Iñigo Aritzako Ekhi, Inhar, Adur, Aitor, Maider, Amets, Aintzane, Ainhoa, Iraia, Izaro, Xabi eta Naroa. Horiez gain, Andra Mari ikastolakoak. Aizkora eskolakoak: Ander Albarracin, Ander Jaka, Joan Goikoetxea, Josu Jaka, Iraide Bergara, Jon Erdozia, Eñaut Oiarbide, Aritz Oiarbide, Unai Jaka, Aitor Salinas, Aritz Jaka eta Mikel Razkin. Harri-jasotzaileak: Albaro Zugarondo, Javier eta Patxi Iribarren anaia eta Jon Irañeta. Motozerra-moztailea: Mikel Lasarte. Aizkolaria, nagusiak: Iker eta Jaime Gorriti, Goizeder Beltza eta Eloy Corchero, Juanjo Erdozia eta Iban Resano eta Arkaitz Jauregi eta Eneko Pagola.

## MENDI LASTERKETAK Katarain eta Beraza ongi Beran

Igandean jokatu zen XV. Berako maratoi erdia (21 km, 2.700 m desnibela). 496 korrikalarik hartu zuten irteera eta horietatik 480k lortu zuten proba despeditzea, Manttale eta Larun gaindituta. Oier Ariznabarreta bakar bakarrik iritsi zen helmugara (1:40:55). 5 minutu atera zizkion bigarrenari, Joxe Amunarrizi (1:45:42). Zegaman bizi den Beñat Katarain lakuntzarra izan zen hirugarrena (1:48:12). Lan bikaina egin zuen lakuntzarrak, baina oraindik ere "lan asko egin beharra dagoela" aipatu du sare sozialetan.

Aipatzekoa ere bada Jose Luis Beraza uhartearra 13.a sartu zela. Probako lehen beteranoa izan zen. Azken hilabetean ez da lehiatu uhartearra, eta txispa hori faltan bota zuela onartu zuen. Emakumezkoetan Oihana Azkorbebeitia gailendu zen (2:02:56).

Bestalde, larunbatean, Gabirian, III. Lehorrei mendi lasterketa jokatu zen (24 km). Altxoko Iñaki Olano (2:02:09) eta Urreritxuko Ainhoa Sanz (2:25:05) gailendu ziren parte hartu zuten 111 korrikalarien artean. Aritz Munarriz etxarriarra seigarrena sailkatu zen (2:18:27).

## Sakandarrak Beran

### Berako maratoi erdia (21 km)

1.Oier Ariznabarreta:	1:40:55
3.Beñat Katarain:	1:48:12
13.Jose Luis Beraza:	1:55:59
43.Mikel Rubio:	2:04:41
59.Julen Lizarraga:	2:06:00
74.Juan D. Lakuntza:	2:08:22
80.Alberto Razkin:	2:08:49
100.Tomas Guirado:	2:11:23
132.Alatz Agirre:	2:14:44
159.Fran Araña:	2:18:57
216.Joxeja Maiza:	2:26:04
219.Joseba Iza:	2:26:50
230.M.A. Asurabarrena:	2:28:01
284.Ibai Arrese:	2:34:36
397.Maria Goikoetxea:	2:50:51
398.Iban Verdugo:	2:50:51
419.Maite Zabaleta:	2:54:46

\*Oharra: Sailkapenean ez da korrikalarien jaioterriko daturik ageri eta, horregatik, gerta daiteke sakandarren bat sailkapen honetan ez agertzea.



## Aznartarrak eta Arrieta Beolako podiumean

### TXIRRINDULARITZA XXIX.

Beola Motor lasterketetan txirrindulari sakandarrak goian izan ziren

Larunbatean XXIX. Beola Motor lasterketa jokatu zen Atarrabian, Gaztetxoak txapelketarako baliagarria. Hasieran lehen urteko kadeteen lasterketa jokatu zen (48 km) eta ondoren bigarren urteko kadeteena (53 km).

Lehen urteko kadeteen proba esprintean erabaki zen eta Dinuy taldeko Haimar Etxeberria gailendu zen, Burundako Quesos Albeniz taldeko Hugo Aznarren aurretik. Denbora berean sartu ziren Sergio Lopez (Q.A.), 5.a eta Martzel Etxeberria (Aralarko Intersport Irabia), 6.a. Jon Erdozia 21.a sartu zen (I.I.), Jon Chamorro 25.a (Q.A.), Antonio Gonzalez 31.a (Q.A.) eta Oihan Etxeberria 57.a (Q.A.). Burunda klubeko Quesos Albenizek talde onenaren saria jaso zuen.

Kadeteen bigarren urteko lasterketa ere esprintean erabaki zen. Sergio Grajera gailendu zitzaizen Intersport Irabiako Igor Arrieta uhartearrari eta Quesos Albenizko Unai Aznarri. Aitor Alberdi (I.I.) laugarrena sartu zen, Iker Mintegi (Q.A.) bederatzigarrena, Migel Gil (Q.A.) 38.a eta Mikel Lizasoain (I.I.) 50.a. Quesos Albeniz hirugarren talde onena izan zen.

### Juniorrak Deban

Juniorrek XLV. Amaiak Bat Saria izan zuten jokoan Deban. Esprintean, Bellota-Goierri taldeko Xabier Isasa gailendu zen. Quesos Albeniz taldeko Mateo Gonzalez 3.a sailkatu zen eta bere taldekide Ailetz Lasa 42.a.

### Eskolakoak Cascanten

Eskola mailako 2018ko denboraldia hasi da dagoeneko. Larunbat arratsaldean eskoletako neska-nabarmenduen zuzenez, "gure helburua jendea trebatzea da". 17 txirrindulari daude, tartean hiru sakandar: Odei Juango lakuntzarra, Alex Uncilla etxarriarra eta Pablo Villar arakildarra.



Mikel Mendinueta pilotu arbizuarra Opakuan gora. EDURNE LACALLE

# Opakuako igoeran gure pilotuak txukun

**AUTOMOBILISMOA** Hasi da Euskal Herriko Mendi Igoeren Txapelketa. Opakuako Igoeran Iker Palacios izan zen lehen sakandarra, helmugan 13.a. Bestalde, Espainiako Mendi Txapelketako 2 mailan Garikoitz Flores lakuntzarra da liderra

Opakuako Igoera Euskal Herriko Mendi Igoeren Txapelketarako baliagarria den lehen proba da. 4,6 km-ko ibilbidea du probak, eguraldiak lagundu zuen eta motor festa polita izan zen Arabakoa. Guztira 74 ibilgailu zeuden izena emanda eta horietatik 56 autok lortu zuten proba bukatzea. Guztietan azkarrena Aitor Zabaleta bergararra izan zen, Lola BMW T-298 barketarekin (2:20).

### Lau sakandar

Proban lau pilotu sakandar lehiatu ziren. Iker Palacios lakuntzarra 13.a sailkatu zen (BRC 05 EVO), 22 segundora (2:43). Bere mailan bosgarrena izan

zen lakuntzarra. Mikel Mendinueta arbizuarra (Peugeot 205 GTI) 32.a (3:04), bere mailan hirugarrena, Iker Askargorta iturmendiarra (Opel Astra GSI) 38.a (3:10), bere mailan 10.a eta Iñigo Zelaia bakaikuarrak (BMW 325i) ezin izan zuten proba despeditu, matxurengatik.

Hurrengo proba Erratzun jokatuko da, Baztanen, Izpegiko Igoera, maiatzaren 5ean. Bertan ariko dira pilotu sakandarrak.

### Garikoitz Flores Espainiako Mendi Txapelketako 2 mailako liderra

Martxoaren 17an hasi zen Espainiako Mendi Txapelketa, Esteponako Peñas Blancas igoe-

rarekin. 2 mailan Garikoitz Flores lehiatzen ari da eta lakuntzarrak lan bikaina egin zuen, 2 mailan irabazi baitzuen (9:09) eta maila horretako liderra baita.

Txapelketarako baliagarria den bigarren proba asteburu honetan jokatuko da, Ubrique-Benaocaz proba. Maiatzaren 19an Fitoko Nazioarteko Igoera dago jokoan, maiatzaren 26an Castell de Guadales igoera, ekainaren 9an Guía de Isora igoera, uztailaren 14an Pujada Alp igoera, uztailaren 28an Valle del Jerte Igoera, agorriaren 18an Chandarako Igoera eta irailaren 29an Santa Totanara igoera.



Aurreko urteko podiuma.

### TXIRRINDULARITZA XXXI. Burunda Trofeoa etzi jokoan Altsasun

Igandean, goizeko 11:00etan abiatuko da, Altsasuko udaletxe paretik, Burunda klubak antolatutako kadete mailako XXXI. Burunda Txirrindulari Elkarte Trofeoa. Bertan kadete mailako puntako txirrindulariak bilduko dira, probak dituen 51 kilometroei aurre egiteko prest. Jakina, tartean egongo dira Sakanako bi taldeko txirrindulariak, Burundako Quesos Albeniz taldea eta Aralarko Intersport Irabia taldea. Proba Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria da.

Hasieran Ziordiraino joko dute, han buelta hartu eta zuzenean Bakaikuraino heltzeko. Handik atzera ere Ziordiraino iritsiko dira, norabidez aldatu eta Olaztin sartuta, Altamira igoko dute eta Altsasutik jaitsiko dute portua, zuzenean Iturmendiraino jotzeko. Han, norabide aldaketa egingo dute eta Altsasuraino iritsiko dira kadeteak, udaletxe pareko helmugaraino. Aurreikusten da ordu eta laurden pasa beharko dutela txirrindulariek Altsasuko proba osatzeko.

## Hiru sakandar Telcom taldean

### TXIRRINDULARITZA

Telcom Ederlan Frenkit Gimex taldeak asteartean egin zuen 2018 denboraldiko aurkezpena. Juan Salasek zuzenduko du taldea, eta nabarmendu zuenez, "gure helburua jendea trebatzea da". 17 txirrindulari daude, tartean hiru sakandar: Odei Juango lakuntzarra, Alex Uncilla etxarriarra eta Pablo Villar arakildarra.



# Sakanako Ibilaldia aurkeztu dute

**MENDIA** Irurtzongo Iratxo elkarteak antolatuta, apirilaren 28an izanen da. 29. edizioa izanen da. Izena ematea zabalik dago eta hiru ibilbideren artean aukeratu ahal izango dute parte-hartzaileek. Bertan aritzera animatu dituzte sakandarrak

Hurrengo astean, apirilaren 28an, mendizaleek zita garrantzitsua dute. Iratxo elkarteak hainbat entitatekin eta babesleren laguntzarekin 29. Sakanako Ibilaldia antolatu du eta data horri begira dabilta gure mendizaleak. Atzo, ostegunean aurkeztu zuten 29. Sakanako Ibilaldia, Irurtzungen. Iratxo elkarteko mendi saileko presidente Pello Altzuea, Nafarroako Mendi Federazioko presidente Martin Montañes, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari Ruben Goñi eta Rural Kutxako Irurtzongo bulegoko arduradun Sara Garcia izan ziren bertan, besteak beste.

Sakanako Ibilaldia proba ez lehiakorra da; "horretarako daude mendi lasterketak" argi utzi zuen antolakuntzak. Ez da sailkapenik egiten. Helburua Sakanako paisaiez eta mendi zoragarriez gozatzea da. Mendizaleek hiru ibilbide izanen dituzte aukeran: Ibilbide Luzea



Atzo aurkeztu zuten, Iratxo elkartean, 29. Sakanako Ibilaldia. N. MAZKIARAN

(54 km), Ibilbide Motza (25,5 km) eta Ibilbide Txikia (14 km). Sakanako Ibilaldia Nafarroako eta Euskal Herriko Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Zirkuituetan sartuta dago. Ibilbideak aurreko urtekoak dira, Ibilbide Motzekoa

izan ezik. "Ibilbidean berrikuntzaren bat sartu nahi zen" azaldu zuen Pello Altzuetak.

**Ia 400 mendizale izena emanda** Aurreko urtean 1.203 mendizalek hartu zuten parte Sakanako

Ibilaldian. Aurten antzeko kopurua hartzeko nahikoa azpiegitura du prest Iratxo taldeak. Momentuz 400 mendizale inguru daude izena emanda. "Eguna gerturatu ahala mugituko da izena ematea, iragartzen duten eguraldiaren arabera. Probaren egunean bertan oraindik izena eman daitekeenez..." aipatu zuen Altzuetak.

Nolanahi ere, lehenbailehen izena ematera animatu ditu sakandarrak. "Egun bikaina pasatzera animatu daitezela. Paisaia eta ibilbide zoragarrietatik ibiltzeko aukera izango dute" azaldu zuten. Behin proba bukatuta, guztiek kamiseta eta diploma jasoko dute. Gainera, mendi materiala zozketatuko da guztien artean.

Ohi denez, ingurumena zaintzeari sekulako garrantzia ematen dio antolakuntzak. Bitarteko guztiak jarriko dituzte zaborrak behar bezala jasotzeko, Guztia behar bezala prestatzeko, 50-60 pertsona inguru ariko dira lanean. Babesleek eta entitateek emandako laguntza ere eskertu zuten antolatzailerekin.

## Izena ematea, zabalik

Apirilaren 25era arte, [www.iratxoelkartea.com](http://www.iratxoelkartea.com) web gunean (Ibilbide Luzeakoak eta Ibilbide Motzekoak 12 euro eta langabe-tuek 5 euro; Ibilbide Txikikoek, 14 urtez azpikoek 4 euro eta 14 urtetik gorakoek 8 euro). Probaren egunean bertan, 15 euro.

## Sakanako Ibilaldia

### Ibilbide Luzea (54 km, 3.388 m desnibela)

Goizeko 6:00etan. Urrizola, Txurregi, Euskal Herriko erdigunea, Beriain (1.498 m), Uhartea Arakil, Aralarko San Migel (1.242 m), Ata bailara, Madotz, Larrazpil, Goldaratz, Latasa, Trinitatea (999 m) eta Irurtzongo plaza. 11/12 ordu inguruko ibilbidea.

### Ibilbide Motza (25,5 km, 1.440 m desnibela)

Goizeko 7:30ean. Etxeberriraino, Arrantzaleen xendatik. Itxasperri, Egiarreta, Madotz, Larrazpil, Goldaratz, Latasa, Artola, Trinitatea (999 m) eta Irurtzongo plaza. 6 ordu inguruko ibilbidea.

### Ibilbide Txikia (14 km, 736 m)

Goizeko 9:30ean. Txikiak heldu baten zaintzapean egon beharko dute. Trinitatera (999m.) igokora, Latasara jaitsi eta Arrantzaleen xendatik Irurtzongo plazara helduko dira. 4/5 ordu inguruko ibilbidea.

## PILOTA Irurtzongo Pilota Txapelketa: guztira 5 partida

Martxoaren 31n hasi zen XXVI. Irurtzongo Pilota Txapelketa. Bi mailatan jokatzeko ari da: 22 urtez azpiko mailan (12 bikote) eta senior mailan (24 bikote). Puntako pilotari afizionatuak lehiatzen ari dira bertan.

Aurreko asteburuan, ostiralean Garciak eta Aldabek 22 eta 15 irabazi zieten Astizi eta Gaskueri eta Lansalotek eta Kortabarriak 22 eta 6 Urkizuri eta Labakari. Eta larunbatean, Josuek eta Bidaurretak 22 eta 18 hartu zituzten menpean Olaetxea eta Lazkoz, Telletxeak eta Odriozolak 22 eta 12 Goikoetxea eta Petriati, eta Garmendiak eta Bastarrikak 22 eta 3 Oskoz eta Arze.

## Irurtzongo Txapelketa

Asteburu honetan Irurtzungeko pilota txapelketako bi jardunaldi hartuko ditu.

### Ostiralean, 19:00etan:

- Zubiria-Altuna / Lansalot-Kortabarria
- Iriarte-Sarasa / Olano-Lizeaga

### Larunbatean, 10:30ean:

- Arrieta-Urruzola / Garcia-Aldabe
- Adonis-Aranguren / Armendariz-Aldutzin
- Gutierrez-Apezetxea / Rekarte-Anduaga



A. IJURRA

## Oier Sanjurjo eta Unai Garzia Etxarrin

**FUTBOLA** Asteazkenean Osasuna taldeko Oier Sanjurjo eta Unai Garzia futbolariak Etxarri Aranatzeko izan ziren, Osasuna Fundazioak antolatutako ekitaldian. Etxarriko Kultur Etxean bildutakoek prest zituzten galderak erantzun zituzten futbolari ezagunek.

Egoera konplikatuan dago Osasuna, baina taldean konfiantza dute jokalariek. Oierrek eta Unai Garciak zaleek eskatutako sinadurak eta oroigarriak sinatu zituzten, eta Etxarrin bildutakoek euren idoloekin argazkiak ateratzeko aukera paregabea izan zuten.

# Errugbia erakusten Sakanako ikastetxeetan

**ERRUGBIA** Mankomunitateak eta Nafarroako Errugbi Federazioak antolatuta, Sakanako ikastetxeetan errugbia sustatzeko saioak hasi dira. Ekainean errugbi campusa antolatu du Mank-ek bailarako neska-mutilendako

Sakanako Mankomunitateak errugbia sustatu nahi du. Horrela, aurreko urtean egindako proposamen bati erantzuna emanez, aurreko errugbi campusa antolatu du, ekainaren 11tik 15era, 15:00etatik 19:00etara. 8 urtetik 16 urte bitarteko neska-mutilei dago zuzendua. Egokitutako errugbi-zinta landuko da batez ere, eta teoria eta praktika uztartuko dituzte. Izena ematea zabalik dago Mank-en, 35 euroren truke (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus).

Nafarroako Errugbi Federazioak oso begi onekin hartu du Sakanako errugbi campusaren antolakuntza eta campusa sustatuko du. Horrela, apirilaren bigarren hamabostaldian federaziotik Sakanako hainbat ikastetxetan barna dabiltza, errugbia zer den, nola jokatzeko eta errugbiak sustatzen dituzten balioen berri ematen. Sakanako ikastetxe guztiei egin zieten proposamena, baina Olaztikoko



Errugbia azaltzeko Lakuntzan egindako saioa. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

eskolak, Iñigo Aritza ikastolak, Zelandik, Korazonistak, Andra Mari ikastolak, San Donato eskolak, Lakuntzako eskolak eta Uharte Arakilgoak onartu zuten gonbidapena. Leire Rodrighez Oñatibia errugbilaria ari da

euskarazko saioak eskaintzen eta Maika Iraizozek egingo dituzte gaztelarazkoak. "Errugbiak errespetua bezalako balore oso garrantzitsuak sustatzen ditu" aipatu du Mank-eko teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

## ARETO FUTBOLA

### Peñíscola du aurkari Osasuna Magnak

Aurreko asteburuan Segovian partida bikaina egin zuen Osasuna Magnak Naturpellek Segoviaren kontra. Atsedendira 1 eta 5eko markagailuarekin joan ziren berdeak, Eric Martel, Alex Llamas (2), Araça eta Victor jokalariek sartutako golei esker. Bigarren zatian Roberto Martilek seigarrena sartu zuen baina Segovia 5 eta 6 hurbildu zen. Imanol Arregiren mutilek ongi erantzun zuten eta, Rafa Usinek sartutako golei esker, 5 eta 8 irabazi zuten.

Lehen mailako liderra Movistar Inter da (68 puntu) eta Osasuna Magna 5.a da (58 puntu). Bihar, larunbarekin, Peñíscola dute aurkari berdeak.

## MENDIA

### Olazti-Arantzazu, Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak prest dauka apirilako txangoa eta mendi irteera. Olaztik abiatuta, mendirik mendi Arantzazura heltzea da gure mendizaleen asmoa. Goizeko 7:00etan jarri dute hitzordua, Olaztin.

Autobuserako izena ematea itxita dago, baina autobusean oraindik tokia badago izena eman daiteke, 639 117 631 telefonoan.

Bestalde, apirilaren 28an Lakuntzako Zabalarte klubak mendi ibilbidea antolatu du, Lakuntzatik aterata, Amezketaraino heltzeko. Amezketan sagardotegian bazkalduko dute. Autobusean joan nahi dutenek herriko ohiko tokietan eman behar dute izena.

## SASKIBALOIA

### CBASK Altsasuk lidergoa berreskuratu nahi du

Nafarroako Saskibaloiko Gizezkoen I. Senior Autonomiko mailan, aurreko asteburuan atsedend jardunaldia izan zuen Altsasuk. Altsasuk ez zuenez punturik bildu, lider berria Liceo Monjardin F taldea da (38-1). CBASK Altsasu taldea bigarrena da (37+8).

Bihar, larunbatean, Altsasu CBASK taldeak sailkapenean 10.a den Escaleras Aguerri taldea hartuko du, Zelandi kiroldegian, 16:45ean. Altsasuarrek dagoeneko liga erabakitzekeko play-offetarako sailkatuta daude, baina lider izatea beti dator ongi eta ea altsasuarrek partida irabazi eta txapelketako lidergoa berreskuratzen duten.



Jon Arretzek Guaxeri egindako bisita. ARTXIBOA

## Liburu-egunak aurkezpenak eta tailerra dakartza Altsasura

Munduko ipuinen tailerrarekin batera, Alvarok, Arretzek eta Zubizarretak liburuak aurkeztuko dituzte

### ALTSASU

Altsasuko udal liburutegiak Liburuaren Eguna dela eta lau hitzordu prestatu ditu aste honetarako. Astelehenean bertan Alfredo Alvaro Igoak *Potroak odoletan* liburuak aurkeztuko du. Narrazio laburren bilduma sortu du etxarriarrak, egunerokotasunari erreparatzeko hainbat modu eskainiz.

Asteartean Jon Arretxeren txanda izanen da. Arbizuarrak *La banda de Arruti* liburuaren aurkezpena egingen du. Hasierahasieran ageri den altxorra eskuratzeko ahaleginean lehia-

tuko dira nobelako pertsonaia nagusiak.

Liburu Eguneke hurrengo hitzordua ostegunean izanen da. Lehen Hezkuntzako haurrendako munduko ipuinak tailerra izanen da Manolita Thundersen eskutik, 18:00etatik aurrera. Aurretik izena eman behar da.

Despeditzeko, ostiralean, Patxi Zubizarreta idazlearen kulturartekotasunari buruzko hitzaldira izanen da. Lan haietako asko Marokon (Marrakech eta Atlas inguruan) kokatu ditu. Familiarteko publikoarendako saioa, euskaraz eta gaztelerez.



## Jendaurreko memoria ariketa

Kultur etxea beteta zegoela, Lakuntzako memoria taldeak "Oroimena kantuz" ekitaldia eskaini zuen igandean. 1936ko iragana eta 2036ko etorkizuna irudikatzen zuten bi emakumek euren istorioa kontatu zuten. Sei agerraldi egin zituzten eta haietan euren egunerokoa aletu zuten. Abesti eta olerkien bidez aberastu zen kontakizuna. +www.guaxe.eus



## Argazki lehiaketako saridunak

Aste Santuko oporrekin batera [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) atariaren bidez argazki lehiaketa antolatu genuen. 15 argazki aurkeztu ziren lehiaketara eta epaimahaiak Amaia Iriarte, Eider Lasa eta Garazi Albarrazinen argazkiak saritzea erabaki zuten. Bakoitzak Errigoraren kutxa bana jaso zuten opari. Argazkiak ikusteko: <https://guaixe.eus/lehiaketa/152223786577>



Liburu trukearen aurretik kontinenteak ezagutu dituzte eskolan. ATAKONDOA

## Liburuak Irurtzongo plazaz jabetuko dira astelehenean

Atakondoa eskola publikoko ikasleak literaturari eskainitako eguna plazan ospatuko dute

### IRURTZUN

Horretan bihurtuko da astelehenean, 09:00etatik aurrera Irurtzongo plaza. Izan ere, Atakondoa eskola publiko ikasleek han ospatuko dute literaturari eskainitako eguna, kulturartekotasun astea despeditzen duena. Pasa den astean zehar ikasleek eskolara liburuak eraman zituzten eta trukean txartel bana jaso zuten. Horiek astelehenean trukatzeko erabiliko dituzte.

Horrekin batera, hainbat txoko izanen dira eta bakoitzean ekimen ugari izanen dira: eskola komunitateak ikastetxera

bidalitako postal mordoaren erakusketa, ikasleek elkarrekin idatzitako hiru ipuinak irakurtzeko aukera izanen da, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak munduko hizkuntzen jolasa jarriko du, denbora-pasak, zerbitzuan praktiketan ari diren ikasleek Anitzartearekin lotura duten hiru denbora-pasa, orri-markatzaileak egiteko aukera izanen da, hizkuntzen txokoa...

Kulturartekotasun Astean zehar Atakondoa eskolan landutako hainbat gauza kalera aterako dira, eskola herrira ateratzeko modua ere bada hori.



Ez dok hiruren eszena bat. UTZITAKOIA

## Galdu ezin den bertako musika-komedia

Euskal musikaren benetako istorioa ezagutzeko Olartziko kultur etxean, bihar, 20:00etan

### OLATZAGUTIA

Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreak euskal musikaren imajinarioan murgilduko gaituen antzerki-ikuskizuna dakarte: *Ez dok hiru*. Antzezlanean aktoreak bi musika maisu bereziren larruan sartuko dira. Eta pertsonaien modukoa da obra ere: eroa, deskonzertantea, irrigarria azalez... Nahiz eta, "azal horren poro bakoitzari geure musikarekiko maitasuna dario".

Bien arteko elkarrizketa da lanaren ardatza. Hitzezko umorea, esaldi motz eta pikatuak, azkarrak, eroak dituenak; euskara, euskal jendartea edo kultura mintzagai dituenak. Euskal musika hizpide hartu bai, baina haren makina bat kanturen zatiak entzuteko aukera izanen da, eszena-tokian hiru musikari izanen baitituzte lagun: Adrian Garcia de los Ojos, Maria Arriaga eta Ivan Allue. Haiek ere, hala holakoak.


Patxo Telleriak idatzitako gidoia du obrak. Hor galderak: Zenbat euskal kanta ezagutzen dituzu, zahar edo berri? Kalkulua egin duzu inoiz? Ziur gaude uste duzuna baino askoz gehiago direla. Ikuskizun honetan berrehun baino gehiago agertzen dira —zatiak, noski!"

## Irurtzongo festetako kartel lehiaketaren 28. edizioa

Irurtzongo Udalak herriko festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Aukeratutako irudia festa-egitarauko azala izanen da. Irurtzundarrek parte hartu dezakete. 5-10 urte, 11-14 eta 15 urtetik gorakoendako da. Lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabek izan beharko dute. Helduen mailan 42 x 60 cm-ko neurria izan behar dute, haurrenak, berriz, 29,5 x 42 cm-ko. Lan guztietan honako testua agertu beharko da derrigorrez: Irurtzongo Jaiak. Uztailak 18-22 Julio 2018. Fiestas de Irurtzun. Lanak garagartzaroaren 1erako aurkeztu beharko dira. Argibideak udalaren web orrian daude: [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus).

## Sanferminetako Oinez barrakan aritzeko gonbidapena

Iñigo Aritza ikastola da aurten Nafarroa Oinez festa prestatzeaz arduratuko dena. Hura iritsi aurretik, urtero moduan Iruñeko festetan barraka jarriko du. Ohi bezala, Takonera parkeko Vista Bella gunean. Nafarroa Oinezek ikuskizun programazio zabala prestatuko du. Hura osatzeko Sakanako musika, antzerki, dantza talde, umorista, animatzaile edo sortzaileei dei egin die. Nafarroa Oinezan sanferminetako egitaraua osatzen lagundu nahi dutenak jar daitezela eurekin harremanetan 606 030 966 telefonora hots eginez edo koordinazioa@oinez2018.ikastola.eus e-postaren bidez. Maiatzaren 2ra arte.



BAZTERRETIK  
MAR GONZALEZ RUIZ  
DE LARRAMENDI

## Begietan

John Bergerrek Milleten nekazariari eskaintzen dizkien artikulu bikainean, margolariaren porrota azaltzen digu: haren pertsonaiei garrantzia ematearekin batera, inguratzen zituen paisaiarekiko oreka galdu omen zuen. Nekazariaren irudiak ez dituzte proportzioaren legeak errespetatzen eta lurrerantz makurtuegiak dirudite. Ez daude infinitura begira: haren margoek lurrerantz gidatzen gaituzte. Paisaiaren errepresentazio tradizioaletan ohikoa zen bidaiariaren ikuspuntu neurriduna galdu da, eta lurraren beharrak makurtzen gaitu. Horrela sumatzen dira Milleten barnean borrokan zeuden bi begiradak: ikasitako paisaia harmonikoen oihartzun pisutsua eta nekazariak lurrean murgilduta, lurraren senean azaltzeko beharra.

Geroago, margolari ugariak desitxuratuko zuten paisaia haien barne sentimena azaltzeko. Baina haien artean, Milleten imintzoa bereziki ederra dirudi: bere barnetik aldenuz, besteen begiratzeko modura hurbildu eta lurra aurkitu zuen. Bere ingurukoei

begira eman zuen bizitza: besteengan errotzen. Eta oraindik gaur, haren margoei so egitean senti dezakegu lurraren beharra.

Horregatik agian lasaitzen naute horrenbeste Milleten koadroek, besteen begietan une batez pausatzeko aukera. Haiengatik urrun egonez, bat-batean oso gertu. Ez gaituzte bakarrik uzten: gu bakarrik, gu beti, eta aurrean zerumuga, etorkizuna; lurra eskaintzen digute aurrez-aurre errotzeko.

Eta haiei begira, susmo larri batek bahitzen nau batzuetan: agian besteen lurra da falta zaiguna. Gure gizartean zerumugan presentzia neurrigabetu da, eta haien parean gu beti txiki-txikiak, sustrairik gabeak. Sentimena infinituz desitxuratu zaigu. Nahikoa da Instagramen ordu laurdena ematea horren lekuko izateko: selfie-ak, argitzeak eta iluntzeak. Gurekin datozenak berriz, apaingarri hutsak dira, ez ditugu begiratzen.

Eta beharbada horregatik kostatzen zaigu horrenbeste bizilagunen sentimen argudioak ulertzea. Ahaztu egiten dugu maiz ez dagoela zer ulertzerik: zer bait sentitzerik akaso. Eta agian, gure xedeak alde batera utziz, noizean behin besteen begietan pausatuko bagina, erraztuko litzateke behingoz gure lurraldearen partekatze odoltsu hau.



Burundar Txistulariak eta Etxarri Aranazko abesbatza aurreko ostiraleko entseguan.

# Txistu eta abesbatzarako kontzertu ederra

Burundar Txistulariek eta Etxarri Aranazko abesbatzak kontzertua eskainiko dute Altsasuko lortia kultur gunean, bihar, 19:30ean. XVI. mendetik gaur egunera arteko erreperitorioa aletuko dute "Baga, higa, biga" kontzertuan

## ALTSASU

Burundar Txistulariek 11 urteko ibilaldian seigarren kontzertua eskainiko dute lortia kultur gunean. Txistuak kale eta festa giroaz aparteko musika egiteko balio duela erakutsi nahi du taldeak. Eta oraingoan Etxarri Aranazko abesbatzaren laguntzaz eginen du.

Bi taldeak elkar ezagutzen dute. Juan Pablo Urizar txistulariak gogorarazi du azken 10-12 urteetan irailero Etxarri Aranazko plazan aritu direla, dantzariekin batera osatutako ikuskizunean. "Elkarrekiko sentipena zegoen". Abesbatzako zuzendari Alicia Armendarizek azaldu digu duela bizpahiru urte sortu zela elkarlanean aritzeko aukera eta batzuen eta besteen konpromisoek aurten emanaldia eskaintzea ahalbideratu dute. Beraz, elkarrekin ariko diren estreinako aldia da biharkoa.

Bi musika erakundeek elkarrekin aritu direnean esperientzia ona izan dela esan digute.

Orain arte kalean izan da eta aretoan aritzea desberdina da.

## Erreperitorioa

Txistu eta abesbatzarako erreperitorioa badago, "beste gauza bat da ongi egin izatea. Aukeraketa egokia egin dugu eta denetarik apur bat izanen da: gauza goxoak, tradizionalagoa, gauza dibertigarriak, tango bat, swinga... Oso ongi landuta. Gure ustez hobereena aukeratu dugu" esan digu Carlos Sanchez Ekiza txistulariak. Eta gaineratu du, "abesbatza ez da edergarri hutsa izanen".

Bera Burundar Txistulariarietako bat da eta taldeak haren moldaketak jo izan ditu. Aurten "pieza baten mundu-mustutzea" izanen da. "Aspaldikoa zen. Moldaketa berria egin dut. Ilusio handiz egin, abesbatza honetan pentsatuta; kalitatezko abesbatza batean".

Azken horren zuzendaria da Alicia Armendariz eta gogoratu du erreperitorioaren aukeraketa

"ideia-ekaitza" baten emaitza izan zela. "Itxuraz, erreperitorio erraza da. Baina ez da hala. Partiturak aztertu eta... hor saltsa dago!" Urizarrek gaineratu duenez, "erritmo aldaketa" asko eta beste ditu erreperitorioak. Eta nabarmendu du piezak "onak, politak, batzuk ileak lazten dutenekoak dira afinazioagatik eta".

## Prestaketaz

Lastailetik ari dira txistulariak erreperitorioa prestatzen. Aldamenen metal boskotea izan dute. "Lan handia" eskatu diela aitortu du Urizarrek. Eguberri-tan Disneyren kantuz osatutako erreperitorioa eman ondoren ilbeltzean heldu zion abesbatzak biharko emanaldiari. "Lan handia" eskatu diela aitortu du Armendarizek.

Sanchez bitan izan zen abesbatzarekin entseatzeko, tempoak egokitzeko. Lehen hartu-eman horren ondoren, aurreko ostiralean eta gaur elkarrekin en-

tseatuko dute. "Gauzak landuko ditugu, baina emaitza izanen da ikaragarri ona!" esan digu Rafael Goñi Lazkano txistulariak.

Urizarrek dionez, abesbatzarekin aritzeak berari "ilusioa" eman dio, "ilusioz egon naiz lanean. Lana! Abesbatzak asko eskatzen digulako". Rafael Goñi Lazkano txistulariak esan duenez, "horrelako konpromiso bat hartzea, guretako estualdi bat da, baina oso pizgarria dena". Eta "pizgarri" horri aurre egiteko Burundar Txistulariak 20 bat izanen dira eta Sakanako metal boskote baten laguntza izanen dute abesbatzako 50 ahotsekin batera aritzeko.

Armendarizek esan digunez, txistulariekin aritzeak abesbatzari "erreperitorio desberdina lantzeko aukera eman digu. Sinfonikotik gertuago dago, abesbatza hutsetik baino. Instrumenturik *a capella*, asko abesten dugu. Instrumentu talde sendoa izatea, taxutzen duena; horretarako aukera gutxitan dago. Pozgarria da".

Euren musika taldeen osasunaz galdetuta, batzuek eta besteek esan dute besoak zabalik hartuko litzuketela musikari berriak euren taldeetan.

## Gonbidapena

Kontzertuko azken piezaren izena hartu du emanaldiak, "moldaketa izugarria eta ikusgarria delako" Sanchezen ustez. Altsasuko festetan txistulari taldeak emandako kontzertuak harriritu gelditu zirenak aukera dute, beraz, harritzen segitzeko. "Ongi pasatuko dute. Gozatzera etor daitezela. Begiak itxi eta sonoritatearekin gozatzeko piezak izanen dira. Kontzertu dibertigarria da. Inolako zailtasunik ez duena. Atsegina".

## Egitaraua

- La Bataille.
- Ilunabarra.
- Agur bihotzeko jaioterri.
- Potxolo dago negarrez.
- Hiru kanta nafar.
- Gernika.
- Artzain kantak.
- Haurrak lotaratzeko doinua.
- Kitolis.
- Zuk ukatu.
- Maitia nun zira.
- Baga, biga, higa.

## Lakuntzako dantza taldea bere egunaren atarian

Elai Alai dantza taldeak dantza eginez eta bazkariarekin ospatuko du bere eguna igandean

## LAKUNTZA

Elai Alai dantza taldeak bere eguna ospatuko du igandean. Musikariek lagundutako 35 bat dantzari osatutako segizioa eguerdian abiatuko du bere martxa. Aurreneko geldialdia plazan eginen du eta han dantza saioa eginen du. Musikariek lagunduta, kalejira koloretsua Lakuntzan barna ibiliko da, han eta hemen geldialdiak egiten eta euren dantza trebezia lakuntzarrei erakusten. Kalejira despeditu eta gero Elai Alai dantza taldeko komunitate guztia Lakuntzako Pertza elkartearen bazkaltzera elkartuko da. Dantza maite duenak Elai Alai taldearen parte hartzeko aukera izanen du.

Lakuntzako Elai Alai dantza taldeak aurten 30. urteurrena ospatuko du aurten. Herria bera hiru hamarkadako ibilbideaz "harro" senti dadin dantza taldekoek herriari zerbait berezia eskaini nahi izan dio eta taldearen ibilbideari buruzko argazki erakusketa prestatu. Hura aste-buru guztian kultur etxean ikusteko aukera izanen dena. Elai Alai dantza taldearen dei egin diete, dantza taldearen argazkiak izanez gero eurekin partekatatu ditzaten.

## Alegre Nafarroako bertsolari gazteen txapelketan

32. aldiz Nafarroako bertsolari gazteen txapelketa jokatu da. Hitzordua gaur 19:00etan da, Iruñeko Nabarrerian dagoen Maravillas gaztetxean. Hamalau eta hemezortzi urte bitarteko 11 bertsolarik parte hartuko dute eta haien artean dago Ekain Alegre altsasuarra. Sarrera doakoa da eta saioaren ondoren merendua izanen da.

# “Leku denetan jarri zan intsumisiyue ta, azkeniako, soldaduske kendu ein zan”

Astelehenien 25 urte beteko die etxarriarra epaitu zebiel. Estatuben epaitu zebien aurreneko alkate intsumisue izendu zan Herri Batasunako alkatie. Biai soldauske Afriken tokatu zakiyon; “bi urteta ez zan aillatu” han ein zen aldiye. 1991tik 1993ra alkate izendakuekin epaiketa kontubek gogatu ttugu.

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ

## 1 Udalak nola kolaboratzen zen Espainiako Armadakin 1993an?

Bakizu, lehen udalak gaztiak hots eitten zittuben talletzeko (laurriyek hartzeko) ta kintuen liste de udaletxien patu ber zan.

## 2 Bierko ta ein ber zan?

Uketu ginen jartzia. Ni alkate nengola ez giñuben ametitutu.

## 3 Zengatik erabai ziñubien ez kolaboratzie?

Aprobatu giñuben udala intsumiso izetie, ta mutikuek herriyen ez talletzia. Gu uketu ein giñen.

## 4 Noiz izendu zan hori?

1992yen. Beste urtiates yondu nintzen, hala-hola, epaiketata-epaiketa.

## 5 Udalak ez kolaboratzeko erabaye denen artien hartu zan?

Bei, denen artio erabai zan. Ta ni, alkate bezala, hor ibildu nintzen Iruña juiziyua ta deneta! Alkate bezala bi o hiru epaiketa urai nittuben.



Manolo Campos Castresana, Etxarri Aranazko alkate izandakue.

## 6 Ta etxe-handiyen ze talde zen orduberen?

Guk, Herri Batasuna, 5 zinegotzi giñuzkiyen, Eusko Alkartasunak 4 eta Eusko Alderdi Jeltzaleak 2.

## 7 Udal asko ein zien intsumiso?

Etxarri izendu zan buru. Bakaikukue debei. Bakaikuko alkatie, hure kartzelien yondu zan intsumiso izetieti. Ziordikue, ni bezela.

## 8 Zer gogutzen dezu epaiketaz?

Kostatu zan. Urtiat ibildu giñen gora ta behera, abokatu-bakin ta dena. Beño, hori goitti etor zan eta... Rekursuek jartzen giñuzkiyen. Beye, azkeniako ba... Epaiketa bat atzia de bota giñuben. Beye, beix e, forman-gatik... Utzi zugun denbora gehiyo, beye, bakizu, gu gauz bet jarri eta biai bestiat.

## 9 Ze zigor jarri zuzubien?

Hiru urtes yon nintzen alkate, ez nen ne aldiye akatu. Urtiat falta zala inhabilitetu ein zubieta. Kargube sei urtetako kendu zubieta. Ta 200.000 peztako multe. Ta hauteskudetan ezin botatu. Ez nakiyen nik hori. Iruña hots ein giñuben

eta inhabilitatuta nengones ezin nela botoik eman. Nik utzi eta hurrengo urtien izendu zan hori.

## 10 Zuu multek ta inhabilitazi-yuek baliyo izendu zebien, soldaduske jendu ein zebien ta, ezta?

Bei, beleixeko. Leku guziten, España guzien jarri zan intsumisiyue ta, azkeniako, soldaduska jendu ein zan. Alkate askok ein zebien ne modue. Bestela ez zebien kasoik eitten eta, klaro! Hemen Bakaikuko alkatie eta ni izendu giñen pioneruek. Ze esanko diau ba! Nai inhabilitetu eta hure, aparte ikurriñe ez jentzietik, preso yondu zan.

## 11 Ikurriñakin de nehiko kontu, ezta?

Ez zubieta bakien uzten. Lehe-na zibillak, ikurriñangatik. Etortzen zien etxia eta, benga: ikurriñe jentzia. Ez nen jentzen. Faten giñen, firmetzen nen paper bat ta hola pasatzen zan. Beixe, kasik astero-astero kuartelia, ikurriñe jentzeko. Ez nintzen allatu jentzia. Karo, gero nahastu zebien ikurriñangatik, soldaduskangatik ta dena.

## Bazkide zozketa

### MARSUKO SARIAK:

#### 1. SARIA:

EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA  
 EUREKA ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA  
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO  
 DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

#### 2., 3. ETA 4. SARIA:

DONOSTIAKO AQUARIUM MUSEOA:  
 SARRERA BANA  
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO  
 DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

